


Europa Krisiz Krisi:
korapiloa askatzen

Europa en crisis:
análisis y propuestas



Argitalpena / Edición: 2018 Abendua / Diciembre 2018.
© EuroBasque
Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua
Consejo Vasco del Movimiento Europeo
Internet: www.eurobasque.eus
Argitalpena / Edita: EuroBasque
Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua
Consejo Vasco del Movimiento Europeo
Fotokonpozioa /
Fotocomposición: Bittek Soluciones Tecnológicas S.L.
ISBN-13 978-84-09-07693-2

Fuente de las
fotografías utilizadas: <https://www.pexels.com> / <https://www.pixabay.com>



Índice



0. Introducción
1. Joxerramon Bengoetxea
2. Marian Elorza
3. Mikel Anton
4. Joana Abrisketa
5. Ander Errasti
6. Edurne Terradillos
7. Iñigo Bullain
8. Anexo programa

Comité Organizador:

Presidente:	José M ^o González Zorrilla
Secretario General:	Joxe Ramón Bengoetxea Caballero
Tesorero:	Iñigo Ocariz Gaubeca
Vicepresidente:	Igor Filibi López
Vicepresidenta:	Lorena López de Lacalle
Vicepresidente:	Iñigo Martínez Zatón
Vicepresidente:	Eusebio Cadenas Cordero
Vicepresidente:	Carmelo Barrio Baroja
Vocal:	Beatriz Pérez de las Heras.
Vocal:	María Oianguren Idígoras.
Técnico EuroBasque:	Johana Etxezarraga Aldamiz-Etxebarria.

EUROPA KRISIZ KRISI: KORAPILOA ASKATZEN sarrera

Jose María González Zorrilla – EuroBasqueko lehendakaria

Europar Batasunak 70 urte bete zituen iaz eta Europar Mugimenduaren Euskal Kontseilua (EuroBasque) haren ibilbideari eta etorkizunari buruzko hausnarketa sakonean murgildu da ordutik. Izan ere, 2017 geroztik Batasuneko erakundeek Estatu, herri eta gizarte zibilarri gonbidapena luzate zieten Europaren etorkizunari buruz eztabaidatzeko. Horregatik, hausnarketa prozesu ireki eta parte-hartzailea gauzatu du EuroBasquek.

Ikertzaileei eta adituei ahotsa emateko saiakera horretan, 2018ko otsailaren 21ean “Europa Krisian: Euskal adituak era ordezkariak Europaren etorkizunari buruz hausnartzen” jardunaldia antolatu genuen Gasteizen UPV/ehuKO Arabako Kanpusean. Jardunaldi horretako hizlarien ekarpenak jasotzen ditugu liburu honetan.

Jardunaldi hori oso berezia izan zen EuroBasquentzat, euskaraz oso-osoan burutu dugun lehenengo egitasmoa izan baita. Europar gaiak euskaraz jorratzea eta zabaltzea garrantzitsua da euskaraz bizi nahi duen gizarte honentzat. Bide berri honi irmo ekin diogu hemendik aurrera EuroBasque-n lanaren zati bat euskaraz eskaintzeko euskal gizarteari.

Halabaina, naiz eta mintzaldiak euskara hutsean burutu ziren, “EUROPA KRISIZ KRISI: KORAPILOA ASKATZEN” liburu honetan ekarpenak era elebidunean jasotzea erabaki dugu, ahalik eta irakurleko zabalenera heltzeko.

Joxerramon Bengoetxeak hasiera ematen dio liburuari, integrazio europarraren bultzadaren atzetik beti oreka zaila egon dela argudiatuz, batetik iraganaren pisua eta bestetik, etorkizunari begiratzeko birradiskidetzaren edo elkartasunaren fedea.

Ilido honetatik, Marian Elortzak argudiatzen du krisitik ateratzen dabilen Europan desparekotasunak agerian daudela eta Europaren proiektu politikoa dudan jarri dela. Europa bidezkoago baten alde egiten du eta eskualde eta nazioen parte-hartze aktiboa eskatzen du europar eraikuntzan.

Mikel Antonek aurrera egitearen realpolitikaren inguruan idatzi du, Europa munduko testuinguruan jarri du eta proposamen zehatzak ekarri dizkigu maila anitzetako gobernantza, gizarte-politika, politika ekonomikoa, ekonomia eta diru batasunaren inguruan.

Ander Errastik Demokrazia Europarra kosmopolitizazioaren erronkaren aurrez aurre kokatzen du eta integrazio prozesua nazio-estatu sistemek lor zezaketen gehiegizko botere eta homogeneizazio joerez babesteko garatu zela ondorioztatzen du.

Joana Abrisketa errefuxiatuen eta Europako babes politiken krisiari buruz dihardu eta zorigaitz honen barneko eta kanpoko dimentsioak jorratzen ditu. Estatu kide eta Batasunaren interes aniztasunak erregimen ezberdinak dituela ondorioztatzen du eta eGiza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidetik eta Errefuxiatuen Zuzenbidetik aldentutako erregulazio bide berrien aldaera historikoa lantzen du.

Bestaldetik, Edurne Terradillosek Europar Batasunaren eredu soziala du aztergai, eta zehazki, Europar Batasunak Zuzenbidea sortzeko erabiltzen dituen tresnak baloratzen ditu. Araugintzan Koordinazio Metodo Irekia”, erabiltzen hasteak dituen ondorioak jorratzen ditu, orain arte metodo tradizionalatik sortutako direktiba sozialak urri dira.

Iñigo Bullainek bukaera ematen dio liburuari “Europaren Distopia Globalizazio Oligarkikoan artikularekin”, zeinetan europar integrazio prozesuaren deriba distopikoa salatzen duen, izan ere, globalizazioaren izaera oligarkikoa Europar Batasunak garatzen dituen orientabide ekonomiko eta politiketan edo Batasunak duen egitura instituzionalean islatzen dela argudiatzen du.

Laburbilduz, arlo anitzak era kritikoan aztertzen dituzten lan heterogeneoak batzen ditu argitalpen honek. Ez diote uko egiten Europako integrazioa garatzeari eta zitelegitasuna, berdintasuna eta solidaritatea bultzateko proposamenak egiten dituzte. Nahi horretan, Europar proiektua berrantolatzeko ekarpen esanguratsuak proposatzen dituzte, eraldaketa sakonak ekarriko lituzkeenak arlo instituzionalean, dimentsio sozialean, erabakitzeko sistematan eta modelo demokratikoan, eta herrien eta herritarren parte hartze sustantiboan integrazioaren eraikuntzan.

Espero dugu ekarpen esanguratsu hauek euskal gizartearentzat baliagarriak izatea.

Eskerrak eman nahi dizkiegu gure jardura ahalbidetzen duten erakundeek: ehu-Gune (UPV/EHU), Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

JOXERRAMON BENGOETXEA

ehuGuneko arduraduna
EuroBasqueko Idazkari Nagusia

Europa Euskaraz Mintegia, EuroBasque (ehuGuneren laguntzaz), 2018 Otsailaren 21.
Arabako kanpuseko Erretoreordetzan, Vitoria-Gasteiz

Europa: iraganarekiko elipsia eta etorkizun- naren fedea.

Europaren integrazio prozesuan eta berau gauzatzen duten Tratatueta badira gabezi edo ausentzia garrantzitsu batzu, nahita alboratzen diren arazoak, Estatukideen erantzukizun balira, halanola Europako hiritarren definizioa, Europako lurraldearen mugak edo Europaren iragana. Estatukideen lurraldeen mugak eta jurisdikzioak ontzat jo ziren, ez ziren kuestionatzen, Estatukideen barruko arazoak ziren, euren hiritartasuna edo naziotasuna bezala: Europako hiritarra da Estatukide baten hiritarra, eta ez da kuestionatzen Estatukideetako hiritarrak nola definitzen diren. Estatukideetako lurralde muga horiek aldatzen badira Europar Batasuna ere aldatuko da. Groenlandia (1985) edo Arjelia (1962) kasu bitxiak dira zentzu honetan: bertako biztanleak eta lurraldeen mugak Europar Komunitateen biztanle edo lurralde-mugak izateari utzi zioten automatikoki. Alemaniako Errepublikak Demokratikoarenak aldiz, automatikoki sartu ziren Komunitateetan 1990. urtean. Baina ekarpen honetan ez dugu mugetaz edo hiritartasunaz jardun behar, iraganaz edo historiaz baizik.

Integrazio europarraren bultzadaren atzetik beti egon da halako oreka zail bat iraganaren pisu eutsiezinaren eta etorkizunari begiratzeko birradiskidetzearren edo elkartasunaren fedearren artean. Historian barna ez murgiltzeko obsesioa, Estatukideen esku uzteko erabakia, neurri handi batean, bakea bermatzeko asmoarekin egin zen. Etorkizun baketsua ziurtatzearen, hobe iragana ez astintzea, bestela etengabeko eztabaida batean jauziko ginatete: nor egin zuen zer noren aurka eta nor hasi zen erasoan? Iragan lotsagarriaren isilunea eta etorkizun loriotsuaren promesa dira orekan dauden jorak, baina oreka hori zaila da, hauskorra. Etorkizunaren aldeko postura egiten du Europar Integrazioaren *ideologiak*. Oreka hauskor hau diskurtso garrantzitsuenetan eta Tratatuaren hitzaurretan topatzen dugu. Ideologia hori Tratatueta eta aldarrikapen ofizialetan islatzen da.

¹ Daniela Caruso-k eta Joanna Geneve-k, "Trade and History: The Case of EU-Algeria Relations", *Boston University School of Law International Law Journal*, 2015, esaten duten moduan, "Algeria proclaimed its independence from France in 1962, which means that for five years the Algerian territory was a part of the European Economic Community ("EEC") through France and that Algerian decolonization was synchronous with the creation of a customs union in the heart of Europe".

I. Europar integrazio prozesu “futurista”

Integrazioaren ideologia *futuristaren* hiru adibide emango dugu hemen, horietako bi Tratatuaren hitzaurrekotik hartuko ditugu² eta hirugarrena, “azia” bota zuen aldarrikapenetik. Har dezagun lehenbiziko adibidea, Europarentzako Konstituzio-Tratatu frustatuaren ataria (Europarako konstituzioa eratzen duen tratatua, 2004):

“Europak, bizipen mingarriak jasan ondoren orain bat eginik dagoela, zibilizazioaren, aurrerabidearen eta oparotasunaren bidean aurrera egin nahi duen uste osoaz, bere biztanle guztien onerako, ahulenak eta baztertuenak ere ahaztu gabe ...

Europako herriek, zein bere nortasunaz eta nazio-historiaz harro egonda ere, antzinako zatiketak gainditzeko erabakia hartuta dutela, eta, gero eta bat eginago, elkarrekin etorkizun bateratua jorratu nahi duten ziurtasunaz”

Europak “bizipen mingarriak” jasan dituela esaten digu, baina ezer zehaztu gabe; ez dakigu zeintzuk diren bizipen horiek. Aipatzen ez dena ez da ahaztu, baina isildu egin da. Europako herriak, gainera, beren “nazio-historiaz harro” daudela esaten digute, “aintzinako zatiketak” gaindituko dituztenez eta orain, Europa bateginik dagoenez, etorkizun loriatsua du, bere biztanle guztien onurako. Integrazioa, etorkizunari begira egiten da, *futurismoa* eta aurrerabide edo progresoaren ideologia dago. Konstituzio Tratatu bertan behera utzi zuten Estatukideetako buruek 2005. urtean Frantziako eta Herbeheretako erreferendumetan ezetzak irabazi zuenean. Horren orde, Lisboako Ituna adostu zuten 2008.ean eta egun, 2009.ko abenduaren 1etik indarrean dagoen Europar Batasuneko Tratatuak, askoz ere “isilagoa” da historiako kontuaz. Hona, beraz, bigarren adibidea:

“Gogoan dute Europako kontinentearen zatibanaketari amaiera ematea garrantzi handikoa dela historiaren ikuspegitik, eta etorkizuneko Europa eraikitzeke oinarri sendoak jarri behar direla

Nahi dute, beren herrien historia, kultura eta tradizioak errespetaturik, herrien arteko elkartasuna areagotu”

Estatukide edo herri bakoitzaren historia errespetatu egiten da, ez da aipatzen harro egotearena. Europako zatibanaketari amaiera eman izana historikotzat jotzen du, eta aipatu gabe, iradokitzen al digu ekialdeko eta mendebaldeko zatiketaz ari dela edo, beharbada, totalitarismoaren eta liberalismoaren arteko zatiketaz? Baina garbi dagoena da zatiketa atzean, iraganean, uzten dela eta helburua etorkizuneko Europa eraikitzea dela, elkartasuna areagotzea. Ez dugu hemen bi tratatuaren arteko aldea aztertuko. Benetan interesatzen zaiguna zera da, Tratatu eratzaileek etorkizuna lantzen dutela eta iragana saihestu eta alboratu egiten dutela. Hitoriarekiko

eliptikoak dira. Batek pentsa dezake estrategia bat dela, alegia Tratatuak ez direla historiako zaurietan zirikutzen hasiko, horrela ez direla Estatuak inoiz ados jarriko.

Baliteke hori arrazoi bat izatea, baina esanguratsua da Tratatu ez diren beste dokumentuetan ere antzeko estrategia somatzen dela. Bigarren mundu gerra Europako historian mugari nagusia izan da, integrazioaren abiapuntua eta iraganaren “bizipen mingarri” horri Europar komunitateen sortzeko akuilua den Schuman adierazpenak arreata zuzena bezain laburra aitortu zion. Hortaz gure hirugarren adibidea:

“Europa ez da eraiki, eta gerra bat izan dugu ... Alemaniaren eta Frantziaren arteko mendeetako aurkaritza desagertzea askatzen du Europako nazioen batasunak ... lkatze eta altzairu-ekoizpena komunean jartzeak berehala seguratu du garapen ekonomikorako oinarriak ezartzea, Europako Federazioarako lehenengo etapa, eta aldatu egingo du aspalditik gerrarako armak fabrikatzen aritu diren – beroriek izan dira biktimarik iraunkorrenak – lurraldeen etorkizuna. ... Horrela batuko dira, era erraz eta azkarrean, zatiketa odoltsuek luzaroan elkarren aurka jarri dituzten herrialdeen interesak, erkidego zabalago eta sakonago bat ezartzeko beharrezko direnak.”

Hemen gerra edota gerrarako armak fabrikatzen aritu diren lurraldeak aipatzen dira, bai eta Alemaniaren eta Frantziaren arteko mendeetako aurkaritza. Baina ezer gehiagorik ez. Gerra izateko zioa Europa eraiki ez izana da, eta beraz apostua etorkizunean dago, iragana atzean uztea. Europak iragan traumatikoa du eta aurrera egin ahal izateko historia gainditu egin beharko du. Europako herriek ere zeinek bere nazio-historia du, zeinek bere moduan aurre egingo dio iraganari, baina etorkizunean bakea, elkartasuna eta aurrerabidea oinarri sendoen gainean finkatzeko Europak ez ditu bere iraganeko mamuak astindu behar. Europa eratzeko, iraganeko borroketan elkarri eragindako traumak berpiztu beharrean, herrien arteko aurreranzko inter-dependentsien sareak sortu behar dira. Judith Shklar filosofariak bi alderdien arteko kontraste bat proposatu zuen: memoriaren alderdia eta itxaropenaren alderdia⁵. Memoriak ahalbidetzen du iraganaren zama ez ahaztea, “inoiz ez gehiago” leloa beti present edukitzeko. Esperantzena, aldiz, aurrera begiratzea dakar, iraganaren beldur garelako, baina behar bada ez gara jabetzen gure inguruan egon daitezkeen Giza Eskubideen urraketetaz eta sofrikarioaz.

II. Iraganari aurre (ez) egiten

Konstituzio Tratatua iradoki duena nolabait kolokan jartzeko, esan dezakegu Europako herri edo estatukide askotan eztabaida sutuak egoten direla euren nazio-historiaren aurrean. Honek ez du esan nahi harrotasun sentimendua garatzen ez denik, baina hori, batzutan, gertatzen da norberaren historia modu akritiko batez jorratzen delako. Talde memoria kapritxosoa da, zatitua eta eztabaidatua. Gertuko historia-

⁵ Schuman adierazpena, itzulpena, Martínez Rueda. F. eta M. Aizpuru Murua, *Gaur egungo munduaren historia 1945-2009*, Bilbo, 2011, 120-121. Gure kurtsiba.

⁶ Judith Shklar, “The Liberalism of Fear” in Nancy Roseblum (ed.), *Liberalism and the Moral Life*, Harvard University Press, 1989: “Unrestrained ‘punishing’ and denials of the most basic means of survival by governments, near and far from us, should incline us to look with critical attention to the practices of all agents of all governments and to the threats of war here and everywhere.” (p. 37), Shklar-en kontrastea, memoriaren eta itxaropenaren alderdien arteko Ralph Waldo Emerson pentsalariak egin zuen bere 1841ko hitzaldi ezagunean, “The Conservative”, Bostongo Masonic Templuan.

² Europarako Konstituzioa ezartzen duen Tratatu, hitzaurrea, IVAPI/HAEEren itzulpena. Gure kurtsiba.

³ “Recordando la importancia histórica de que la división del continente europeo haya tocado a su fin y la necesidad de sentar unas bases firmes para la construcción de la futura Europa”

⁴ Europar Batasuna eratzen duen Tratatu, IVAPI/HAEEren itzulpena. Gure kurtsiba.

rekiko ahanzduraren joera orokorra izan da europar kontinentean. Herri askotan zailtasunak eta zalantzak azaltzen dira euren iragan bortitza eta gordinari heltzeko orduan, berriro ere, iraganeko mamuak astintzeko. Nahiago izaten dute mamu horiek lasai edukitzea, lo gozoan. Baina aukera edo joera honek bere arriskuak baditu. Hasteko, ahanzdurak biolentzia eta injustizia pairatu izan duten pertsonak, biktimak, alboan uzten ditu eta honek gogoa eta memoria kutsa dezake. Historiako episodio edo une jakin batzuk hautatzen dira, horiek gogora ekarriz, eta beste batzuk, aldiz, ahanzdurak estali egiten ditu. Gerra zibilak horrelakoak dira askotan. Harro egoteko motibo gutxi topatzen da. Agian Europako herrien arteko gerrak, bizipen mingarri horiek, Europako gerra zibilak izan dira. Europa = etorkizuna eta bakea versus Estatukide = iragana eta gerra kontrajartzen duen ikuspegia, Tratatuak iradokitzen dutena, irauli behar dugu. Gerra europarrak izan dira, gure gerrak, eta bakea herriena ere izan da.

Espainiako gerra zibilaren kasuan garbi ikusten da, nazioarteko eta europar dimentsio hori, nola lerrokatu ziren herrialde desberdinak, eta Europar gerra bezala ikusia izan da. Errepublikak gainditu edo irauli zenean, kolpelariak diktadura "nazional-katolikoa" ezarri zuten eta errepublikazale gehienak "garbitu" zituzten⁷. Hego Euskal Herrian ere bai Frankozaleek sarraskiak egin zituzten errepublikazaleen aurka, Eusko Jaurlaritza sostengatzen zuten alderdi guztien aurka, eta exekutatu ez zituztenak, ihes egin eta herbesteratzea lortu zutenek Bigarren Mundu Gerraoste arte Europa berriak frankismoari aurre egiten lagunduko zuelako itxaropenari eutsi zioten. Esperantza hori euskal herbesteratuen artean, oso hedatua izan zen⁸. Europazaleak ziren, demokratikak ziren, errefuxiatuak ziren, Europar integrazioaren ametsa ere bazuten. Baina ez zen gertatu. Bigarren mundu gerraostean, Gerrate Otzaren eta "Europako kontinentearen zatibanaketaren" testuinguruan diktadura frankistak eskeintzen zuen irudia, antikomunismoaren gotorleku lurraldearena, Europako gerra zibil otzaren dinamikan birkokatzeko balio izan zion, eta Espainia piskanaka hasi zen mendebaldeko Europa liberantz arrimatzen⁹. Portugalgo edo Greziako diktaduretan gertatu zenaren kontra, Espainiako errejimenak diktadorea bizi bitar-

tean iraun zuen, baina frankismoaren errejimenak bera izan zen bere buruaren eraldaketa, demokraziarako trantsizioa, ahalbidetu zuena. Espainia mailan 1977ko Aministiaren Legeak amnesia ezarri zuen, ahanzdura baizen trantsizio "gozoaren" mitoaren giltza. Trantsizioan ez zen inolako garbiketarik edo purgarik egingo; dena barkatuko zen, etorkizun berri bat eraiki ahal izateko. Paralelismo handia dauka Espainiako trantsizioak Europako integrazio prozesuarekin. Zauriak baina, hortxe diraute, biktimek ez dute ahaztu, eta hogeitahamar urte beranduago, 2007an Memoriaren Legea onartu zuen Espainiako Parlamentuak. Europar ere bai, lehenago ala berantago, iraganari aurre egin beharko zaio, ikuspegi kontinental oso batetik, ez bakarrik estatuz estatu. Honi buruzko adibide batzuk emango ditugu, Espainiako kasua isolaturik ez dagoela erakusten dutenak, alegia Europar fenomeno bat dela.

III. Europar gerra zibilak eta memoria koloniala

Polonian lege bat onartu berri dute nazien suntsipen zelaiak "poloniar zelai" bezala izendatzen duten kazetariei espetxe zigorra ezartzeko arriskuan jartzen dituenak. Naziek poloniar lurraldean eraikitako Konzentrazio zelaiak edo "hil-zelaiak" poloniarrek dira, oraingo Poloniako jurisdikzioan kokatuta daudelako; baina legearen arabera, "poloniar zelaiak" deitzeak iradokitzen du poloniar nazioak zerikusirik izan zezakeela suntsipen horrekin¹⁰. Nahiz eta garai horietan Poloniar estaturik ez egon, bazegoen, ordea, poloniar nazioa. Legea kazetariei zuzenduta dago, eta historiariek terminoak nahi duten moduan erabili dezakete, baina kazetari batek ezin du inolaz ere iradoki poloniarrek sarraski horrekin zerikusirik zeukatenik.¹¹ Historiaren gaia ez da sinplea, historiagintza eginkizun konplexua da, eta "zintzo" ala "gaitzo" ezaugarri nazionalen bitartez sinplifikatzeak politizatu egiten du historia, duen konplexutasuna kenduz. Sarraski bat herri oso bati leporatzea eta herri oso bat zuzitzea historia egiteko oso modu traketsa eta ankerra da. Bai Alemaniako alderdi eta mugimendu populistak (Pegida, AfD) eta baita Poloniako gobernua (Aurrerakuntza eta Justizia alderdia) ere gerrako gertakizunak tresna edo arma politiko gisa erabiltzen ari dira, Holokaustoa edo Shoah banalizatuz, "beste eginkizun" bat balitz, eta ez gaitu gizaki moral gisa kuestionatzen¹².

7 *Ikus Espinosa Maestre, F. (2006) Contra el olvido. Historia y memoria de la guerra civil, Madrid: Crítica. Edo Juliá, S. (ed.) (1999) Víctimas de la guerra civil, Madrid: Temas de Hoy. Santos Julián ustez 1940. hamarkadan diktadurak terrorea erabili zuen jadanik "bentzituta" zeudenen aurka eta horiek izan dira Espainiak mendeetan bizi izan dituen urterik txarrenak, baina herbestean pentsatzen zuten aliatuen garaipenak Francoren gainbehera ekarriko zuela. (iturria: eldiario.es 2017-10-28).*

8 *Garai hau maisuki azaldu du Leyre Arrieta Alberdik FJ Landaburu-ren La Causa del Pueblo Vasco, liburuaren edizio kritikoan, UPV/EHU argitalpen zerbitzua, Bilbo, 2018: "El miedo a que la caída de Franco supusiera la implantación de un régimen comunista en la Europa mediterránea pesó sobremanera en los gobernantes europeos quienes, en ese contexto de guerra fría, estimaron enormemente los imperativos del sistema de defensa.... Los países en quienes hasta hacía bien poco los nacionalistas vascos habían depositado sus esperanzas les daban la espalda en aras a mantener el status quo establecido". 43. orrialdea.*

9 *Neronek horrela esana dut beste leku batean: "Sin despertar simpatías europeas, la España franquista, simpatizante de nazis y fascistas, pero con tarjeta de presentación anticomunista, fue colocada en 'cuarentena', aislada pero retenida para el bloque occidental por sus acuerdos bilaterales con EEUU. Fue a través del europeísmo que se 'reconcilió' en el exilio gran parte de la oposición democrática al franquismo, tan fragmentada y enfrentada durante la República. Ocurrió en el famoso IV Congreso del Movimiento Europeo Internacional, en Munich, en junio de 1962." Joxerramon Bengoetxea, "El desarrollo internacional desde la perspectiva del europeísmo", 3 Jornades Lluís Maria de Puig i Olivé: El desenvolupament internacional des de la perspectiva de l'europeisme, Girona, 2015-05-28, en www2.girona.cat/caljornadesdepuig/jornades*

10 *Errusiak historiari buruzko antzeko lege bat onartu zuen zeinaren bitartez Errusia 1939. urtean Alemaniarekin batera Poloniaren erasotzaile gisa aurkezten duten diskurtsoak zigortzen dituen. Halaber zigortzen zituen bigarren munduko gerra garaiko gerra krimenetaz mintzatzen diren diskurtsoak, ez badira Nurenbergeko auzian aitortutako gerra krimenak. Beste hitzetan esanda: bigarren mundu gerran gertatutako gerra krimenak bakarrik izan ziren Nurenbergen aitortutakoak, alegia naziek egindakoak, eta Errusiari edozein gerrako krimen leporatzea delito bat da.*

11 *Errusia zein Poloniako egoera ondo azalduta dago honako artikuluan, Marc Santora, "Poland's 'Death Camp' Law Tears at Shared Bonds of Suffering With Jews", New York Times NYT, 6-II-2018: "The law has two parts. One outlaws the phrase 'Polish death camps', a term that scholars agree is misleading since the camps were erected and controlled by Nazi Germany. More troubling, historians say, is the second part of the law, which makes it a crime — punishable by a fine or up to three years in prison — to accuse 'the Polish nation' of complicity in the Holocaust and other Nazi atrocities." Santorak azaltzen duenez, "although many Poles risked their lives to save Jews, others energetically took part in pogroms, murdering at least 340 Jews in the town of Jedwabne in 1941 and 42 in the city of Kielce in 1946, after the war ended, to take two notorious examples. Still others extorted or betrayed their Jewish neighbors."*

12 *Paul Mason, "Reject Kaczyński's Attack On The Rule Of Law In Poland", Social Europe bloga 2018-02-16.*

Frantziak ere azkenean bere iragan "kolaboratzaileari" aurre egin behar izan dio. Hau nahiko berandu gertatu zen, *Klaus Barbie edo Maurice Papon* auziekin. Hala-ber, Arjeliako gerran egindako sarraskiak eta torturak luze egon ziren ametitu gabe, *Aussaresses* auzia egin arte. Egindako abusuak legezko amnistia batek estali eta babestu zituen¹³.

Europar integrazio prozesuak eta Europar Komunitateak eratzeko ideiarekin funtsean nazio gorroto historikoak gainditzea dago. Horrela berradiskidetze bat sortzeko asmoa dago, alegia Europar gerra gehiagorik ez egotea. Bere sorreratik, hastape-netatik Europar Batasunak "isilune ituna" dakar, historiaren elipsia, zeinaren arabera iraganean egindako sarraskiengatik ez zen erantzukizunik esijituko, hori herrialde bakoitzak egingo zuen, bere gisara. Baina erantzukizunei aurre ez egiteko erabakiak azken finean Europar dimentsioari uko egitea suposatzen du: Europa etorkizuna da, ez iragana. Horren aurrean Europako gerra "zibil" gisa ulertu beharko genituzke herrialde europarren arteko une latzenak, nahiz eta historiografiek, eta Tratatuak beraiek, ikuspegi nazionaletik aztertzen duten.

Europar Batasunaren hurrengo zabalkundea Balkanetara egingo da, batez ere Yugoslavia ohiko estatu batzuek, gehi Albania. Eslovenia 2004an sartu zen, eta Kroazia 2013an, eta azken honen iragana ez zen oztopo izan. Serbiak, Kosovok eta Bosniak ere iragan bereziki mingotsa dute, serbiar ultranazionalistek burututako garbiketa etnikoak kasu, eta Balkanetako "gerra zibil" horiek ere Europako gerra zibila izan ziren, Europar Batasunak nahiko modu traketsean kudeatu zuena. Genozidioa pairatu duen Bosnia-Herzegovinan badago Srpska errepublika deritzona, laister sezesioaren bila abia daitekeena. Kosovok 2008an independentzia aldarrikatu zuen eta Europar Batasuneko bost Estatukidek, Espainiako Erresuna barne, oraindik ez dute arrezagutzen, eta hori ez da bere problemarik handiena¹⁴. Europako hegoalde horretan gertatutako giza eskubideen urraketak ez dira azkar ahaztuko, baina Europar Batasunak, horiekin ere, etorkizunerako apostua egingo du, iraganen zauriei aurre egitea ez dagokio Europar Batasunari. Noiz arte jarraituko dugu isilunearen itunaz? Trantsiziozko Justiziaren inguruan ikuspegi oso aberatsak daude Europan, baina orain arte, gatazkak herriz herri jorrotzen eta suertatzen joan dira. Egia eta Berradiskidetze Batzordeak sortzen joan dira, baina horietan guztietan Europar ikuspegia falta da. Memoria eta Historia, orain arte, modu nazionallean deklinatu dira, baina aurrerantzean europar iragana "kudeatzen" ikasi behar dugu, alemaniako historialariek *Vergangenheitsbewältigung* deitzen dutena. Memorialak, historia ofizialak, artxibategiak, museo nazionalak, historia ikasketak, europar iza-

ria jorrotzen hasteko ordua iritsi da. Laster Haga-ko Kongresuaren 70 urteurrena ospatuko da, eta europarrok aukera hori baliatu beharko genuke denboran atzeraka ere ausardiaz begiratzen, 1948an hasita eta handik atzera. Bruselan eraiki den europar memoriala praktika on bat litzateke, europar historiaren etxea hain zuzen ere¹⁵. Aurrerapauso bat da gure iraganaren ikuspegi europarra emateko eta kontrajarriak eta eztabaidatuak diren iragan europarraren irakurketa nazionalak gainditzeko, benetazko egitate eta dato historiko osoen bitartez¹⁶.

Gainera, ez dira bakarrik Europa barruko gerra zibilak (Mundu Gerrak) jorrotu behar direnak. Baita ere, nagusiki, kolonizazioaren eta inperialismoaren arazoa, hori ere Europaren iragana da eta Europar Batasunak ez lieke bereak diren erantzukizunei ihes egin beharko¹⁷. Europako metropoliek, bere Estatu-kide gehienek¹⁸, kolonizazioan parte hartu zuten modu batean edo bestean. Afrikako, Asia Hegoaldeko, Ekialde Hurbileko, Ozeaniako edo Amerikako herriak kolonizatu, esplotatu, menperatu, esklabatu eta kasu batzuetan genozidiatu egin zituzten, modu gordinean esateko europarrok egin genuen, eta modu batean erantzule gara. Herrialde jatorrizkoak, bertako biztanleak, "indigenak" bilakatu genituen, subdito gisa gobernatu, lurraldeak ustiatu eta kulturak suntsitu genituen europarrok. Gero, deskolonizatzeko prozesuarekin herrialdeek independentzia lortu zuten eta metropoli europarrak diskretuki "desagertzen" joan ginen, interes eta lotura ekonomikoak gordez, akordio komertzialak adostuz, hizkuntza eta kultura europarrak utzita, eta denborarekin "landideta" proposatuz¹⁹. Baina beti ere eragindako giza eskubideen abusetaz erantzun gabe. Hau da jarrera nagusia gure artean: Prozesu "zibilizatzaile" horiek ez direla epaitu behar. Tamalez ez dira kolokan jartzen, iragana direlako. Erresua Batuan, Frantzia, Herbeheretan iragan koloniala historialarien eta politikarien diskurtsoetan behin eta berriz azaltzen den gaia da eta zalantzarik gabe berradiskidetzea iragan kolonialaren eginkizun eta erantzukizun nagusia da. Baina alor horretan ere europar dimentsioa ez da inon azaltzen.

15 Birgit Aschmann, "Entre amor y odio. Europa y las emociones que necesita", UPV/EHUko Udako Ikastaroak, 2017, *Euro-Basque-ren ikastaroa 60 años de los Tratados de Roma. Nuevas narrativas de integración europea ¿Qué Europa reconstruir ahora?*, Donostia-San Sebastián.

16 Natalie Nougayrède kazetariak horrela azaltzen du "There is no shortage of official speeches about Europe that are full of historical references. What's harder to find are events, memorials, statements, educational programmes or museums where Europe's complex tapestry of distinct national histories are brought together in ways that help to understand the lives, histories and experiences of others on the continent. Europeans still largely see their fellow Europeans' history through the lenses of their own national past. This surely accounts for much of the growing psychological gap between east and west, but also north and south." *The Guardian*, 13 feb 2018

17 Ben Mercer, "The Memory of Europe's Age of Catastrophe, 1914-2014", in Nocholas Doumanis (ed), *The Oxford Handbook of Europe 1914-1945*, Oxford, 2014, "while memory of the Second World War and the Holocaust has often been discussed in terms of forgetting, there was no amnesia but rather a selective appropriation of the past; most European states now more easily remember the Second World War than their colonial heritage. In the aftermath of the relatively brief and shallow purges, societies on both sides of the Iron Curtain settled into a myth of victimhood in which Germany bore sole responsibility for the horrors of war and genocide. The populations of Europe thus emerged as innocent victims, or anti-fascist resisters with a few collaborators".

18 Denak ez, Estatu-kide batzuk kolonizatuak izan dira historian zehar, Irlanda, Finlandia, Malta edo Zipre besteak beste, eta ekialdeko Estatu-kideek, bereziki Visegrad deritzon taldekoek, oso present dute sobietar inperialismoa.

19 Ikus, zentzu honetan, Kalypto Nicolaidis, "Southern Barbarians? A Post-colonial Critique of EUniversalism", Kalypto Nicolaidis, Berny Sèbe & Gabrielle Maas (eds), *Echoes of Empire: Memory, Identity and Colonial Legacies*, London, 2014, 281.

13 Gai honetaz guztiz aholkugarria *Stina Löytömäki-ren monografia Law and the Politics of Memory. Confronting the Past*, Routledge, NY, 2014. Adibide gehiago jar daitezke, eta egunotan Charles Maurras-en inguruko eztabaida interesgarria dago Frantziako medioetan. Artero izen batzuk gogoratu egiten dira, urteurrenak alegia, eta 1868 urtean jaiotako intelektuala omentu behar ote den ezbaian dago, Vichy errejimeneren alde jarri eta planteamendu ultranazionalista eta arrazistak zituelako.

14 Alegia, zatiketa etnikoa, korrupzioa, mafia, soldata bazuak, langabezia, ekonomia geldoa, bidaiatzeko trabak, ikus Andrew Testa, *Kosovo Journal*, "Kosovo Finds Little to Celebrate After 10 Years of Independence", *NYT*, 2018-02-15

MARIAN ELORZA

Eusko Jaurlaritzako Kanpo
Harremanetarako idazkari nagusia.

Euskal adituak eta ordezkariak Europaren etorkizunari buruz hausnartzen.

Jaun-Andreok, arratsalde on,

Lehenik eta behin, Eurobasque eta EHU-GUNE zoriondu nahi ditut ekimen hau antolatzeagaitik. Izan ere, ez baita ohikoa Europako gaiak jorrazteko solasaldiak/topakepak Euskara hutsean egitea. Eta euskararen erabileran aurrera egiteko, honelako pausoak ezinbestekoak dira.

Ekimen honek zentzu handiagoa hartzen du diskurtso populista hedatzen ari den une honetan bai Europan baita espainiar Estatuan ere. Horren erakusgarri, azkenaldi honetan salatzen ari garen birzentralizatzeko saiakerak edota, hizkuntzen kontura, Kataluniako hezkuntza sistema aldarazteko proposamenak.

Hasierako gogoeta hau, gaurkoan aztergai dugun gaira narama: Europa eta bere etorkizuna. Jarraian hizlariak garatuko duten eremuan sakondu gabe, labur-labur azaldu nahi nituzke Europako egoera politikoa eta beraren etorkizunaren inguruan Eusko Jaurlaritzak duen ikuspegia.

Testuinguruari erreparatu ezker, *Europa bidegurutzean dagoela* dioen leloa, puri-purian segitzen du. Mundua -Europa barne- dimentsio anitzeko krisialdi batetik pasatu berri da. Bi mundu-gerren salbuespenekin, azken mendean inoiz bizi izan ez genuen krisialdirik sakonena pairatu dugu. Krisiaren ostean, polarizazioa eta globalizazioa areagotu dira eta, horiekin batera, berdintasun eza ere bai. Europari dagokionez, krisitik ateratzen ari garela dirudien arren, azken urteetako gorabeherak desparekotasuna agerian utzi dute eta ondorioak ekarri dituzte europaren proiektu politikoarentzat.

Finantza-krisia eta gero, zorraren krisia etorri zen, eta jarraian euroarena. Hori gutxi balitz, pertsona errefuxiatu krisiak (giza-drama larria) are gehiago konpli-

katu zuen EBko Estatukideen arteko oreka politikoa. Bukatzeko, Brexitak Europaren integrazioaren dekadentzia-prozesu luzearen behin betiko urratsa zirudien. Europazaleontzat, 2017 urtea tregoa edo inflexio-puntu bat izan da bilakaera negatibo horretan. Dena dela, denborak bakarrik esan dezake ea benetan horrela den.

Krisi honek ez ditu herritarrak soilik ukitu, eragin nabaria izan du Estatu-nazioetan ere. Kataluina edo Eskoziako auziak, eta auzi hauen aurrean ikusitako zenbait jarrera, Estatu horien ahultasunaren erakusle dira.

Horizontean badira ordea europear proiektua berreskuratzeko borondatea azaltzen duten zantzuak. Esaterako, Juncker presidentearen Europaren Etorkizunari buruzko Liburu Zuria edota Macron Presidenteak ikuspegi europeistaz egindako proposamenak. Bitartean Alemanian gobernu berria osatzeaz dago (Koalizio handia) eta badirudi aukera egon daitekela frantziar-alemaniar ardatza berriz ere abian jartzeko (bera izan baita europar integrazioaren lokomotora).

Puntu honetan, gure buruari galdetu beharko genioke ia zer-nolako proiektua sortu daiteken testuinguru berri honetan. Proiektu federalagoa edota proiektu populista, zentralizatzailea eta birnazionalizatzailea? Herrien Europa edo Estatuena? Estaturik gabeko nazioek eta eskualdeek izango al dute/dugu zeresana europaren gobernantzan? Egia esanda, entzuten diren zenbait diskurtsoren aurrean zaila egiten da baikor izatea. Hainbat Estatuetan (Europako ekialdean baino baita Italian, Espainian edota Austrian) topiko populistak ugaltzen ari dira. Eta kostata aurkitzen da herrialde eta Estaturik gabeko nazioetako herritarrak kontutan edukitzen dituen programarik.

Eusko Jaurlaritza Europaren Etorkizunari buruzko euskal ikuspegia lantzen ari da. Jean-Claude Junckerrek liburu zuriaren bidez luzatutako gogoetaren testuinguruan. Dokumentu horretan hainbat gai jorratuko baditugu ere, irekiera honetan hiruzpalau baino ez ditut azpimarratuko.

Hasteko, egungo Europar batasunaren sortzaileek defendatu zituzten balioen berreskurapena beharrezko ikusten dugu. Puntu honetan gogoratu beharra dago, sortzaile horien artean euskal nazionalistak, errepublikakoak eta sozialistak egon zirela.

Guretzat, Europak bere herritarrak izan behar ditu jomugan, eta horiekin batera eraiki behar du bere integrazio-proiektua. Europa sozialago baten alde egiten dugu eta Eskubide Sozialen Sutabeari loturiko lanak begi onez ikusten ditugu.

Merkatu-ekonomia defendatzen dugu, herritarren ongizatera orientatutako ekono-

mia soziala baldin bada. Inbertsio-politikak eskatzen ditugu, austeritatea errezeta bakartzat hartzen duten politiken orde. Aldi berean, eurogunearen eraikuntzan aurrerapausoak eskatuko ditugu, elkartasun eta erantzunkidetasun handiagoaren alde eginez, kontrol demokratikoa hobetu dadila eskatzeaz batera.

Gure ustez, elkartasun hori ez da soilik ad-intra eman behar, baizik eta ad-extra ere bai. Auzotasun-politika egoki bat garatu beharko da, bai justizia sozial eta humanismoari lotutako arrazoiak direla medio, baita estabilitadea eta segurtasuna bermatzeko.

Balio humanistetara orientatuta eta benetako maila anitzeko gobernantzan oinarritutako europar sinisten dugu.

Gure tradizioarekin bat etorriz, Europako eskualde eta nazioek europar eraikuntzan parte-hartze aktiboa izan dezatela eskatuko dugu. Horrek ez du inola ere apurtzen EBko edo Estatuetakoa ordenamendu juridikoa. Aitzitik, Maastrichteko Tratatuaren espirituarekin bat dator. Bada garaia beraz musika eta letra jartzeko subsidiariorotasun eta proportzionaltasun printzipioei. Bada garaia nolabait konkretatzeko maila anitzeko gobernantzaren diskurtsoa. Hain zuzen, Europar Batzordeak han-hemenka erabili izan duena Gobernantzaren Liburu Zuria 2000 urtean argitaratu zuenetik.

Ez dugu defendatzen Europa "a la carta" izatea, baino aldi berean ez zaigu onargarria iruditzen gutxi batzuk, betoren bidez, beharrezkoak diren aurrerapenak oztopatzea. Lankidetzaz indartuen alde gaude, beti ere atea irekia mantenduz gerora egon litezkeen atxikimenduei.

Bukatzeko, Europa gehiago eskatzen dugu, baina ez edozein motatakoa. Europazale konbentzituak gara, baina kritikoak ere aldi berean. Europeismo moderno orain dela 70 urte egindako Hagako Batzarrean sortu zen. Batzar hura gidatu zuen espiritua berreskuratzea, eztabaida konplexu honetara argia ekar dezaketen gakoetako bat da.

Eskerrik asko.

MIKEL ANTÓN

Eusko Jaurlaritzako Europar
Gaietako arduraduna

Euskal adituak eta ordezkariak Europaren etorkizunari buruz hausnartzen.

Arratsalde on guztioi.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi nizkieke Eurobasque Kontseiluari eta EHU-GUNERI, mahai-inguru honetan parte hartzera gonbidatu izanagatik; hala, mahai-inguru hau bitxia da euskaraz garatuko delako osorik. Espero dut, ekimen honen ostean, beste batzuk burutzea, Europari buruz gehiago hitz egiteko aukera izan dezagun eta, gainera, euskaraz.

Hortaz, zorionak EUROBASQUE eta EHU-GUNE, oso egokia baita ekitaldi hau euskaraz garatzea.

Formatu honen denbora-mugaketengatik eta esleitu didaten denbora-espazioa errespetatze aldera, nire azalpenean ahalik eta eskematikoena izaten saiatuko naiz.

Europaren etorkizunaren inguruan daukadan ikuspegiaren inguruko ideia batzuk garatu aurretik, uste dut galdera batzuk egin behar direla.

Lehenengo galdera hau izango litzateke: non gaude eta nola heldu gara honaino?

Bigarrena: nola ikusten dugu gure burua eta zer izan nahi dugu?

Ikuspegi bikoitza egongo litzateke, hau da, Europako herritar gisa daukaguna eta bakoitzari bere herrialdeko nazional gisa dagokiguna.

Beharrezkoa da gauzak ikuspegiz begiratzea. Hau da, mugitzen garen testuinguru ezagutu behar dugu eta gutxiengo babesaren lor dezaketen proposamen errealistak egiteko gai izan behar gara, horiek aurrera atera daitezten. Ez dut ezkutatu Monnet-en metodo funtzionalistaren aldekoa naizela eta uste dudala konkista politiko asko denboran eutsitako bilakaera baten emaitza direla. Gainera, belaunaldi baten ekarpenak, garrantzitsuak izan arren, kate-maila bat baino

ez dira historiaren kate luzean.

Eta uste dudanez ideala *realpolitik* deritzonarekin tartekatu behar dela, bizi garen agertokia gainetik deskribatzen hasiko naiz.

I. Nondik gatoz eta nora goaz.

Uste dut ados egongo garela bi etapa handi daudela azkenengo 67 urteak integratzeko prozesuan (1951etik aurrera). Lehenengoaren protagonistak oinarriak ezarri zituzten Estatu-nukleo gogor bat izan ziren, geroago 12 estatu-kidera edo 15era arte heldu zirenak (1995). Ekialderanzko hedapenek markatu zuten bigarren etapa eta horren bereizgarria gobernantzan eman den aparteko zailtasuna izan da, aurrera egitea eragotzi duena, itunak eraginkortasunez erreformatzeko etengabeko arrakastarik gabeko saiakeretan islatu den bezala (Amsterdam, Niza, Konstituzio-tratatua,...). Zehazki, lortutako azkenengo fruitua Lisboako Ituna izan zen eta horren potentzialtasunetako asko oraindik daude garatzeke. Politikan, sarritan, arazoa ez da testuena, baizik eta nahirik ez dagoela; hortaz, testuak gabezi hori justifikatzeko aitzakiazat hartzen dira.

1989an, Berlingo Harresia erori zen eta 1992an Maastricht-eko Ituna sartu zen indarrean. Orduetik hona, Europar Batasuna aldi berean bi dimentsiotan aurrera egiten saiatu da, hau da, kanpoko eta barneko dimentsioetan. Hain zuzen ere, batetik, nola jardun nazioarteko eragile gisa (Estatu-kideak ordeztuz edo ez), Kanpoko eta Segurtasun Komunekeko Politikarekin lotuta egongo litzatekeena. Bigarren dimentsioa Europako herritarrekin eta Estatu-kideek eta estatuz azpiko erakundeek batasunaren gobernantzan izan beharko luketen paperarekin dago lotuta. Kontu horiek, ez bata, ez bestea, ez daude itxita, ezta nahikoa garatuta ere gaur egun.

Aurretik aipatu dut Europako herritartasuna, niretzat garrantzi itzela duen erakunde Europa politikoaren eraketa gradualean (nahikoa da jatorrizko eskubideen katalogoak Brexitaren negoziazioetan izaten ari den ondorioak ikustearekin edo horrek bertako herritarrentzat izan zitzakeenak, Eskoziako erreferenduma-ren ondorioz Erresuma Batutik ateratzekotan eta Europar Batasunean sartu ez izatekotan).

Bestalde, 1994tik aurrera, Ekonomia eta Diru Batasuna hiru fasetan gauzatu

zen, bukatu gabeko proiektu gisa, baina izaera politiko guztiz eztabaidaezina duena.

Eta bien bitartean, Lisboako Ituna (2009ko abenduak 1) indarrean sartu bezain laster, krisialdia hasi zen eta atzeraldi handi horrek islatu zituen sistemaren gabezi eta akats guztiak (ez soilik Europakoa). Krisiak erakutsi zigun ez zeudela gobernantza-mekanismo nahikorik jarduketa-eremu askorentzat: Ekonomia eta Diru Batasunaren gabeziak (zor-arazoak, finantza-sistemaren arazoak, etab.). Era berean, krisiari esker, ikusi genuen ez zegoela politika ekonomiko, energetiko edo digital komunik, ezta immigrazioko eta errefuxiatuen politika komunik ere. Azkenik, Brexita bezalako gertakariengatik eta egiaztatu dugunez ez dagoela eskema nazionalak pilatzearen ondorioz sortutakoaren bestelako Europa sozialik, ziurgabetasuna sorrarazi da eta, oro har, herritarrak proiektu europarretik aldendu egin dira.

Egun, aurrekari horiekin, erronka proiektu europarra berriz orientatzean datza, hain zuzen ere, arrisku globalaren gizarteak aurkezten dizkigun erronkei erantzutea ahalbidetzen diguna. Enpresa horren arrakastaren edo arrakastarik ezaren arabera, proiektu europarrak herritarren babesa berreskuratuko du; izan ere, hori gabe, oso zaila izango litzateke proiektuak aurrera egitea. Hala, birorientazio hori herritarrarentzako zerbitzuak gidatu beharko du, izaera populista duten proposamenetan erortzea saihestuz.

Hasieran aipatu dut komenigarria edo beharrezkoa dela ikuspegia izatea. Horretarako, jakin behar dugu agertoki global batean bizi garela, hain zuzen ere, desagertutako Ulrich Beck filosofo alemanak aipatzen zuen arrisku globalaren gizartean. Zehazki, agertoki horren bereizgarri dira elkarrekiko interdependentziak, lankidetzara eta elkarlanera eramaten gaituztenak, azken batean, elkar ulertzea.

Aurrerago azalduko ditudan proposamenek, behintzat horietako batzuek, itunak berrikustea ekar dezakete; hala ere, badakit gaur egungo agertokia ez dela horretarako egokia. Baina, edonola ere, Batasunak nazioarteko agertokian duen paperaren inguruan sortutako galderei erantzun beharko lieke; maila anitzeko gobernantza eraginkorra eratu beharko luke, eragileen kopururik handiena inplikatzen duena, herritarrak barne. Horrez gain, area monetario optimoa eta demokratikoa eduki behar du; produktibitatea hobetzea ahalbidetzen duen politika ekonomiko komuna garatu eta gero eta aldakorragoa den produkzio-sistema

batean beharrezko egitura-erreformak egokitzen dituen benetako gizarte-politika garatzeko erronkari aurre egin. Aldi berean, politika komunen oinarri izan behar dira jasangarritasuna eta etorkizuneko belaunaldiei utziko diegun legatuaren ideia.

II. Maila anitzeko gobernantza.

Bada garaia ahobatezkotasunen sistema gainditzeko, betoa horren korolariora izanik, baita erakunde benetako komunitarizazioa burutzeko ere, Europako legebiltzarra ahaldunduz. Hala eta guztiz ere, ez nago estatu mailako legebiltzarren parte-hartze aktiboaren alde (subsidiarotasunaren kontrolean izan ezik); izan ere, ematen duenaren aurka, nire ustez, horrek politika komunak berriz nazionalizatzea dakar eta ez horien komunitarizazioa, horien sinetsitako demokratizazioaren aitzakiarekin. Aitzitik, Europar Legebiltzarrerako hauteskundeetarako nazioz gaindiko zerrenden ekimena burutzea espero izan da luzez eta hori aurrerapauso nabarmen bat izango litzateke Europako herritarrak benetan ordeztzen dituen ganbera bat lortzeko.

Europako Batzordearen presidentea hautatzeko ekimenak, Europako hauteskundeetara aurkezten diren familia politiko desberdinen arabera, edo batzordekideen kopurua murriztea integrazioarako aurrerapen-neurri garrantzitsuak izango lirateke.

El hecho de que los Estados miembros acordaran el establecimiento del espacio Schengen y el SECA tiene un especial impacto en el principio de solidaridad. En primer lugar, porque la protección de las fronteras exteriores es por definición un concepto más relevante en los Estados miembros fronterizos que en los Estados que no lo son. Los primeros asumirían más problemas en la gestión de sus fronteras. Es aquí donde ha de proyectarse el principio de solidaridad. En segundo lugar, mediante el SECA, los Estados subscribieron el principio de que el asilo y la protección internacional constituye el logro que ha de preservarse. Si el sistema no puede ser implementado en alguno de los Estados, entonces debiera ser asistido por las instituciones de la UE y por otros Estados. Sin embargo, dentro del SECA, el Reglamento Dublín III menoscaba inevitablemente el concepto de solidaridad y pese a que el mismo declara reposar sobre el mismo, tiene precisamente efectos contrarios a lo solidario³⁹.

V. Conclusiones

El sistema de asilo de la UE atraviesa una de sus crisis recurrentes. La pregunta es hasta qué punto, en esta ocasión, están cambiando sus connotaciones. Como adelantábamos, el interés de los Estados miembros y de la UE en someter el asilo a normas y decisiones de tan diverso índole, —más denso en relación a la dimensión interna y menos en relación a la dimensión externa—, da lugar a regímenes distintos. Más aún, encierra la intención de abrir nuevas vías de regulación de la migración alejadas del Derecho de los refugiados y del Derecho Internacional de los Derechos Humanos. La importancia histórica de este giro, fundada en motivos de política interna de los Estados, pone en entredicho el principio de solidaridad —tanto ad intra como ad extra— y el reparto equitativo de la responsabilidad reconocidos en el art. 80 del TFUE.

En efecto, las dimensiones interna y externa de la política de asilo llevan aparejada, respectivamente, regulaciones y decisiones distintas en cuanto a su naturaleza y alcance. Mientras que las normas del SECA incorporan una serie de garantías sustantivas y procedimentales, la tendencia observada en la dimensión externa se acompaña de decisiones de índole político, de Acuerdos de Movilidad que adolecen de una naturaleza claramente vinculante e incluso escapan de las vías formales de asunción de compromisos jurídicos. Dado que se trata de proposiciones cuyo fin es influir en el comportamiento de los Estados y de los individuos, y de dirigir su acción hacia ciertos objetivos, cabe considerar la oportunidad de contrastar sus bases legales con las del propio Tratado de Lisboa.

35 Nagore, M., *La aplicación extraterritorial de los tratados de derechos humanos: un nuevo marco para la protección de los refugiados ante las medidas externas de control fronterizo*, Tesis doctoral, Universidad de Deusto, 2017.

36 FRA, *Handbook on European law relating to asylum, borders and immigration*, FRA (European Union Agency for Fundamental Rights y Consejo de Europa, 2014, p. 35

37 Thym, D., Tsourdi, E., “Searching for solidarity in the EU asylum and border policies: Constitutional and operational dimensions”, *Maastricht Journal of European and Comparative Law*, vol. XX, 2017, pp. 1-17.

38 Declaración de Roma de los dirigentes de los veintisiete Estados miembros y del Consejo Europeo, el Parlamento Europeo y la Comisión Europea, de 25 de marzo de 2017. En <http://es.euronews.com/2017/03/25/texto-completo-lea-la-declaracion-de-roma> (acceso el 30 de diciembre de 2017).

39 Salomon, N., “The principle of solidarity in asylum and migration within the context of the European Union accession process”, *Maastricht Journal of European and Comparative Law*, vol. XX, pp. 1-17.

ANDER ERRASTI

Etika eta Filosofia Politikoan
Doktorea Gubernance-ko Ikerlaria

Europa Euskaraz Mintegia, EuroBasque (ehuGuneren laguntzaz), 2018 Otsailaren 21.
Arabako kanpuseko Erretoreordetzan, Vitoria-Gasteiz

Demôikrazia Europarra kosmopolitizazioaren erronkaren aurrean.

I. Sarrera krisi europarra ala demokraziaren krisia?

2008az geroztik, Europar Batasunak inoiz aurre egin dion krisialdi garai zalapartatsuenari egin dio aurre. Krisialdiaren funtsean edo oinarrian krisialdi ekonomikoa badago ere, ezin dugu ukatu krisialdiak erpin asko izan dituela. Hau da, beste hainbat esparruetan izan duela eragina: gizarte ereduaren krisialdia (desberdintasunen igoeraren ondorioz ongizate erakundeen gainbehera eredu¹), Europar Batasunaren mugen krisialdia (ipar-Afrikako pertsona etorkin naiz errefuxiatuen kudeaketa desgokia tarteko²), aniztasunaren kudeaketaren krisialdia (eskuin muturreko mugimenduen gorakada erakusgarri³) eta, funtsean, demokraziaren krisialdia. Zer esanik ez Estatu-Kide batzuen gehiegikerien aurrean erakutsi duen ezintasuna. Egoera honek integrazioaren berezko bertuteak zalantzan jarri ditu. Urte askotan zehar Europar integrazio hau hiru zutabeetan oinarritu da, Daniel Innerarityk Europar Batasunaren promesak deitzen dituen zutabe horietan hain zuzen ere⁴: bakea, demokrazia eta hazkunde ekonomikoa.

Lehenari dagokionez, ibilbideak argilunak eduki dituen arren, agerikoa da bigarren mundu guda ondorengo garaian, bai eta Sobietar Errepublikaren desegitearen ostean, Europar Batasunak bere barnean hartu dituen estatuen arteko harremanak baketzea lortu duela. Izan ere, Europar Batasunak estatuen arteko gatazka politikoak biolentziaren errekurtsorik gabe bideratu ala konpontzeko balio izan du, ñabardurak-ñabardura. Askotan Europar Batasuna proiektu post-nazionala dela esan oi denean, irakurketa nahastu batean erori oi da: Europar Batasuna ez zen herri, aberri edo nazioen aurka joateko proiektu gisa eratu, havek babesteko baizik⁵. Bigarren mundu gerrate ostean, Europak bere baitan zuen (eta duen) aniztasuna babesteko bide bakarra kooperaziorako bideak eta, batez ere, pizgarriak sortzea zela jabetu ziren garaiko eliteak. Ez dut inolaz ere perfektua izan zenik esan nahi

¹ Kochenov, de Burca & Williams (2017)

² Nicolaidis & Viehoff (2017)

³ Champeau (2014)

⁴ Innerarity (2017)

⁵ Nicolaidis (2001, 2013)

II. Sarrera krisi europarra ala demokraziaren krisia?

2008az geroztik, Europar Batasunak inoiz aurre egin dion krisialdi garai zalapartatsuenari egin dio aurre. Krisialdiaren funtsean edo oinarrian krisialdi ekonomikoa badago ere, ezin dugu ukatu krisialdiak erpin asko izan dituela. Hau da, beste hainbat esparruetan izan duela eragina: gizarte ereduaren krisialdia (desberdintasunen igoeraren ondorioz ongizate erakundeen gainbehera eredu¹), Europar Batasunaren mugen krisialdia (ipar-Afrikako pertsona etorkin naiz errefuxiatuen kudeaketa desegokia tarteko²), aniztasunaren kudeaketaren krisialdia (eskuin muturreko mugimenduen gorakada erakusgarri³) eta, funtsean, demokraziaren krisialdia. Zer esanik ez Estatu-Kide batzuen gehiegikerien aurrean erakutsi duen ezintasuna. Egoera honek integrazioaren berezko bertuteak zalantzan jarri ditu. Urte askotan zehar Europar integrazio hau hiru zutabeetan oinarritu da, Daniel Innerarityk Europar Batasunaren promesak deitzen dituen zutabe horietan hain zuzen ere⁴: bakea, demokrazia eta hazkunde ekonomikoa.

Lehenari dagokionez, ibilbideak argilunak eduki dituen arren, agerikoa da bigarren mundu guda ondorengo garaian, bai eta Sobietar Errepublikaren desegitearen ostean, Europar Batasunak bere barnean hartu dituen estatuen arteko harremanak baketzea lortu duela. Izan ere, Europar Batasunak estatuen arteko gatazka politikoak biolentziaren errekurtsorik gabe bideratu ala konpontzeko balio izan du, ñabardurak-ñabardura. Askotan Europar Batasuna proiektu post-nazionala dela esan oi denean, irakurketa nahastu batean erori oi da: Europar Batasuna ez zen herri, aberri edo nazioen aurka joateko proiektu gisa eratu, hauek babesteko baizik⁵. Bigarren mundu gerrate ostean, Europak bere baitan zuen (eta duen) aniztasuna babesteko bide bakarra kooperaziorako bideak eta, batez ere, pizgarriak sortzea zela jabetu ziren garaiko eliteak. Ez dut inolaz ere perfektua izan zenik esan nahi (nola ahaztu Robert Schuman eta Jean Monnet-en integrazioa proiektuan Eurafrika bezalako ideia kolonialista baten kutsua egotea⁶, esate baterako) ez eta *ethos* teoriko hori integrazioaren hauspo bakarra izan zenik. Edozein gertaera konplexutan gertatu oi den gisa, hainbat faktore egon ziren tarteko, eta bakarra begiratu egindako azalpenak nahitaez gabeziak izango ditu. Baina, hala izanda ere, argi dagoena integrazio prozesua XIX. mende geroztik zetorren nazio-estatu sistema babesteko sortu ez zela da, alderantziz baizik: hauek lor zezaketen gehiegizko botere eta homogeneousazio joerez babesteko hain zuzen ere. Hori izan zen bakearen promesaren funtsa nagusia.

Illo beretik, bigarren promesari dagokionez, Europar Batasunaren barnean giza

eskubideetan eta demokrazian oinarritutako zoru komun bat eraikitzen joan da. Oinarritzko printzipio eta prozedura amankomunek eragindako bilakaerak hainbat arlotan giza eskubide naiz demokrazia ulertzeko gutxieneko adostasun bat eraikitzea lortu du, ondorioz estatu kideen barne demokratizazioa era nabarmenean sustatuz. Ez da harrizkoa, zentzu horretan, urteetan zehar integrazioaren eragile nagusietako bat Europar Batasuneko Justizia Auzitegia izan izana. Izan ere, erakunde honek Europar hiritarren eskubideen bateratzea (Europar hiritar baldintza oraindik formalki zehatzegia ez zen une batean) sustatu zuen integrazioaren lehen hamarkadetan zehar. Maastrichteko Itunaz geroztik bide horretatik gertatzen ari zen sakoneko integrazio hori erakundeetara eramanean zuen, besteak beste demokrazia eta giza eskubideen promesa hura ekialdean sortu berri ziren estatuetara zabalduz. Prozesu honek, aldi berean, subiranotasunaren zesioak ekarri ditu nahitaez: gutxieneko printzipio horien kudeaketan estatuek erabaki autarkikoak egiteari uko egin eta, neurri handi batean, erabakiak Batasunaren esparruan hartu behar direla barneratu dutelarik.

Azkenik, hirugarren promesa genuke, hazkunde ekonomikoaren promesa, hain zuzen ere: krisialdi globalaren eraginaz at geratzea lortu ez den arren eta, beraz, orain arteko bidea lausotu izan dezakeen arren, agerikoa da Europar integrazio prozesuak orokorrean Estatu kideen naiz Europa beraren garapen ekonomikoa ekarri duela. Ongi naiz pertsonen mugimendua hazkunde horren baldintza nagusietako bat litzateke, bai eta ezagutzaren zabalkuntza transnazionala.

Unibertsitateen arteko elkarlanerako tresnak prozesu horien adierazgarri dira: 1984. urtetik eta, batez ere Amsterdamko Itunaren onarpenaren ostean Europar Komisiotik bultzatutako ikerketa programa europarrak (egun indarrean dagoen H2020 programa) edo Erasmus programa bera esate baterako. Bai eta estatuen kooperazioak bultzatutako ekimen industrial transnazionalak – askotan estatuen zurruntasunetik irten eta eskualdeen bertuteen arabera antolatzen direnak – ala erregulazio sistema bateratuak. Elementu guzti hauek, euren argi-ilunekin (batez ere hazkunde horren banaketari dagokionez), Europar integrazioak ekarri duen hazkunde ekonomiko eredu horren atzean egongo lirateke.

Hau ala izanik, nola da posible krisialdian gaudela onartzea? Ez al daude munduko beste hainbat erregio egoera hare larriagoan, Europar Batasunaren krisialdia behin eta berriz nabarmentzen ariteko? Hor egongo litzateke gakoa: Europar integrazio prozesuak orain arte ekarri dituen zalantzarik gabeko garapenek ez ligukete egun agerian geratzen ari diren gabeziei muzin egitera eramanean beharko. Krisial-

6 Hansen & Jonsson (2015) p.215
7 Gellner (1983)

diaz aprobetxatu eta euren proiektu politiko atzerakoiak bultzatu nahi dituzten mugimenduei aurre egin nahi izanez gero, hau da, II. Mundu Gerrako barrabaskeriak ikusirik integrazioaren beharraz jabetzera eraman gintuzten ikuspegi eta indarrak totalitarioak gailendu nahi izanez gero, integrazioaren garrantzia azpimarratzearekin ez da nahikoa izango. Bide horretatik, Brexit-aren kasuan agerian geratu zen gisa (behin berriz faktore bakar bati egoztega gehiegizko sinplifikazioa izango zitekeen arren), ikuspegi natibista, eskuin-muturreko ala populista erradikalek euro eszeptismoan politika-hobi bat izango dute. Europar Batasunean ez bagara krisialdiak utzi dituen zauriak gainditzeko gai agertzen, Batasunaren zentzua teoriaran oso argi eduki arren, batasun hori sendo mantentzea ez da erraza izango. Izan ere, batasunaren oinarrian zeuden hiru promesa haiek, krisi ekonomikoa baino lehen agertutako eraldaketa prozesuaren ondorioz berriz hausnartu egin behar direla onartzen ez badugu, batasun beraren zentzua zalantzan geratuko da. Erronka honi erantzun ezean, integrazio proiektu bera dago arriskuan.

Europar Batasunak dituen gabeziak ezin ditugu ukatu: austeritate politikaren kudeaketa bidegabea, Mediterraneoan egunetik egunera larriagoa den egoera, gutxieneko zoru demokratiko horri agertzen ari zaizkion mehatxuak ala Brexit-ak agerian utzi dituen tentsioak. Honek ez du esan nahi, baina, krisialdiaren arduraduna Europar Batasuna bera denik. Izan ere, Europar Batasuna batik bat estatu kideen eta hauen hiritarren ekimenen ondorioa da. Hau da, ez da bere baitan eratzen den erakunde bat, guztiok, maila desberdinetan bada ere, osatzen joan garen erakunde bat baizik. Arazoa gaur egun hiritarrok nazio-estatutik haratago jokatzen dugun arren, geure nahi eta beharren ordezkariak estatuetan mantentzen dela da. Hau da, hiritarrok geure eguneroko praktiketan, jabetu ala ez, eraldaketa prozesu batean gaudela barneratu dugun arren, erakundeek nazio-estatuan oinarritutako dinamika mantentzen dituzte, bai estatu mailan baina, hare garrantzitsuagoa, bai eta maila transnasionalean ere⁸. Hala, erakundeak ez dira hiritarren behar, nahi, aspirazio ala aldarrikapenei erantzuna emateko gai agertzen. Erantzun ezean, hiritarrek funtsezko segurtasunetara itzultzeko joera dutelarik, integrazioaren arerio naturalak diren mugimendu natibista, eskuin-muturreko ala populista erradikalei bidea leunduz. Erakundeak kudeatzeko gai ez diren eraldaketa prozesu hau globalizazio prozesuak ekarri du nabarmen eta, Europaren kasuan, espazio kosmopolitizatu gisa aztertzea behartzen gaitu. Zein da arazoa? Orain arteko analisiek Europar Batasuna nazio-estatuaren ikuspegitik ulertzen jarraitzen dutela: hau da, eraldatzen ari den errealitate honen diagnostika nahiko argi egon arren, oraindik ez dauzkagu errealitate honetan ezinbestekoak diren erakundeak pentsatu, diseinatu naiz ulertze-

ko kontzeptuak. Erronka honi aurre egitea da, hain zuzen ere, proposamen *démocratikoaren* helburu nagusia.

III. Europa espazio kosmopolitizatu gisa

Zer esan nahi du, baina Europa espazio kosmopolitizatu batean bihurtu dela esateak? Modernitatearen analisi soziologikoei agerian utzi dutenez, sakoneko ondorioak dituzten bi prozesu bizitzen ari gara: batetik, lurralde eremu zehatz, itxi eta homogeneotan oinarritzen ziren erakundeak gainditzeko. Izan ere, erakunde hauek dagoeneko ez dira sortu ziren garaian babestu behar zituzten helburuak babesteko gai: berdintasuna, askatasuna, solidaritatea edo kooperazioa, ilustrazioan finkatutako modernitatearen oinarriak, ezin dira, jada, estatu-naziotik bermatu. Edo ez behintzat Westphaliako Akordioen ostean sortu zen nazio-estatu sistematik behintzat. Klima-aldaketa, arrisku nuklearrak, zibererasoak, finantza merkatuak edo terrorismo global bera ez dira nazio-estatuaren mugetara mugatzen eta, beraz, erantzun transnasionalak eskatzen dituzte⁹. Hare gehiago, kudeatzeko gaien dimentsio transnasionalak estatu barnean hartzen diren erabakien ondorioak estatuaren mugetatik haratago somatu daitezkeen eraman dute. Egoera hau 1986ean Txernobylgo hondamendi ostean somatu zuen Ulrich Beck soziologoak halako arriskuen ondorioak gertakariaren estatutik haratago pairatzen direla ikusarazi zuenean. Orduz gero halako gertakarien kopurua hazi besterik ez da egin, azken mugarrak ondorengoak izanik: Fukushima istripu nuklearra, Estatu Islamiko izena hartzen duen erakundearen izenean mundu osoan zehar egin diren atentatuak ala hauteskundearen emaitzak atzeritik baldintzatzeko sare sozialetan egin diren ekimenak (fake-news deritzoguz horiek, Cambridge Analytics-en kasua azken erakusgarria izanik). Hiru kasu hauetan nazioarteko erregulazioen gabeziak ingurumenari, segurtasunari ala demokrazia berari egin dakieken kalteaz gain, aipatu dugun sakoneko arazoa agerian uzten dute: erakundeek kudeatu beharreko kontuak ezin ditugu nazio-estatura soilik lotutako erakundeetatik pentsatu.

Bestetik, aurrez-aurretik ustez modu perfektuan definiturik zeuden giza taldeetan (nazioa, klasea, erlijioa) oinarritzen ziren jokamolde indibidualen gainditzeko gurek ez norbanakoen aspirazio normatibo edo jarrera politiko gisa, egiaztapen empiriko gisa baizik¹⁰. Izan ere, giza banakoen nortasuna, harremanak eta bizi-proiektuak ez dira dagoeneko kanpotik jasotako ereduaren arabera era pasiboan finkatzen, edo ez soilik behintzat. Horrek ez du eredu horiek existitzen ez direnik esan nahi: ereduaren definizioa uneoro aldatzen dela baizik. Gureari eutsiko bagenio, esate baterako,

8 Besson (2009)
9 Albrow (1996), Giddens (1999), Beck (1997, 1999, 2016)

10 Beck (2014)
11 Iglesias (2006)

duela berrogei urte euskaldun izatearen esanahiak eta gaur egun duen esanahiak oso desberdinak dira. Zer esanik ez oraindik atzerago joko bagenu. Gaur egun, euskaldun izate edo nortasun hori euskaldun izatearen bizipen anitzek eraikitzen dute. Talde psikologian oinarritutako azterketek erakusten dutenez, hegazti talde baten antzeko joerak dituzte egungo giza-taldeek: ez dago giza-taldearen norantza zehazten duen hegazti bakar bat ezta aurrez aurretik finkatutako norabide bat, ga-bezia honek taldeari norabide bat jarraitzea oztopatzen ez dion arren. Era berean, taldea dagoela onar daitekeen arren, talde horren mugak malguak dira: hegazti batek edo talde batek taldea utzi arren, jatorrizko taldeak bertan jarraituko du. Hau da, lehen ez bezala, testuinguru kosmopolitizatu batean taldearen kidesuna definitzen duen normaltasuna uneoro negoziatu eta berreraikitzen den zerbait da, honek taldearen existentzia zalantzan jartzen ez duen arren. Nolabait, nazio edo gizarte kontzeptu bera filosofian ‘funtsean eztabaidagarriak’¹¹ diren kontzeptuen kategoria berean sartu ahalko genuke: horrek ez du guztiz erlatiboa denik esan nahi, ez eta zehaztu ahal ez dugunik ere, aurrez aurretik zehaztua ez dagoela eta, beraz, edukia eztabaida naiz adostasunaren ondorioa izango dela baizik.

Zentzu horretan, kosmopolitizazioak ekarritako bi eraldaketa hauek ez dute, post-modernitatearen babesleek aldarrikatu gisa, erakunde naiz giza talde hauek desagertuko direnik esan nahi. Izan ere, hori da modernitatearen paradoxa nagusia: printzipio batzuk sustatzeko sortutako erakundeek erakunde horien arteko eta erakunde horien subjektu diren gizakien arteko interakzioak hainbeste eraldatu dituztela, erakunde horiek dagoeneko ez direla printzipio horiek sustatzen jarraitzeko gai. Esate baterako, naziotasunean oinarritutako heziketa sistema normalizatuak aukera berdintasuna eta, ondorioz, hiritarren askatasuna bermatzeko ezinbestekoak izan dira. Baina, era berean, askatasun horrek hiritarroi ustezko normaltasun horiek gaintzeko tresnak eman dizkigu, normaltasun horiek guztiz eraldatuz. Hau da, hain zuzen ere, kosmopolitizazioaren funtsean dagoen erroka: nola lor genezake gizarteak era ahalik eta razionalean antolatzeko sortutako erakundeen zilegitasuna (normatiboa naiz funtzionala) mantentzea erakunde horien oinarrian zegoen normaltasun zentzu hori dagoeneko existitzen ez denean. Izan ere, giza-taldeek zentzu guztia edukitzen jarraitzen dute, gizaki izaten jarraitzen dugun heinean, ilustraziotik babestu nahian gabiltzan printzipioek beharrezkoak izaten jarraitzen duten bitartean. Hauek bat egin zezaten sortu ziren erakundeek eremu kosmopolitizatu batean elkartze hori bideratzeko ezgai agertzen direla da arazoa.

Nire ustez – eta ez ogibideari loturiko korporatibismo hutsagatik –, erroka hau gaintzeko bide bakarra ikuspegi filosofiko batetik erakundeen oinarrian dauden

kategoriak berriz pentsatzea litzateke. Hau da, filosofiak ez du egoera konponduko: zalantzarik gabe enpresa hau politika zientzialariei, zuzenbide adituei, ekonomis- tei, eta abar dagokie. Filosofiak, baina, aditu hauen gogoeten funtsean dauden kategoriak bizitzen ari garen eraldaketara moldatzen lagundu ahalko liguke.

Europar batasunaren kasuan, erroka ondorengo galderan sintetizatu ahalko genuke: nola artikula genezake nazio-estatutik haratago dagoen gizarte eremu kosmopolitizatu bat eremu horren baitan dauden giza-errealitate nazionalen uko egin gabe? Europar Batasunaren kasuan eremu instituzional amankomun hau ondo definitzeko beharra oraindik nabarmenagoa da, erroka komunei aurre egiteko erakundeak lurraldeei lotutako erakunde eta giza talde anitzekin talka egiten duelako.

Izan ere, *demos* bat praktika instituzional elkarbanatuetan oinarritutako akzio kolektibo batekin konprometua duten indibiduoek osatzen badute, nola da posible hau osatzea oraindik zatitua dagoen – eta, epe-erdian behintzat, egongo den – eskualde europar batean? Galdera honek bi dimensio dauzka: nola konprometitu daitezke gizarte desberdinak helburu edo interes amankomunen defentsan eta zein da horretarako erakunde sistema aproposena? Izan ere, eraldaketa prozesuak nazio-estatu eredu tradizionala eraldatu duen arren, ez du ingurune nazional hauen garrantzia alboratu. Hau da: erroka amankomunak (ingurumenaren babes, terrorismoaren aurkako neurriak, berdintasunaren bermatzea edo giza eskubideen babes) dagoeneko nazio-estatuaren mugen barnean definitu ezin daitekeen arren, hauen esperientziak nazioek ardatzen dituzten eremuetan gertatzen jarraitzen dute. Hau da, hain zuzen ere, eredu dêmoikratikoak artikulatu nahi duen tentsioa.

IV. Eredu *dêmoikratikoaren* oinarritzko hiru printzipioak

Simplifikazioak-simplifikazio, urteetan zehar demokrazia europarraren inguruko eztabaidak bi ardatz nagusi izan ditu: ikuspegi intergubernamental eta ikuspegi federala. Lehenengoek balizko *demos* bakarra nazio-estatuaren hura zela defendatzen zuten eta, beraz, subiranotasun zilegi bakarra hauek aldarrikatzen zutena zela. Ondorioz, integrazio europarra *demos* estatal subiranoen arteko harremanen ondorio hutsa zela eusten zuen eredu honek. Ikuspegi federalak, aldiz, europar mailako *demos* bat eraikitzea posiblea dela aldarrikatzen du eta, beraz, Europar Batasunaren jomuga estatu europar bat sortzea litzatekela. Zoritxarrez, ez dirudi bitako batek integrazio europarra sendotzeko ahaleginean arrakasta eduki duenik. Edo ez behintzat integrazio eredu bat era iraunkorrean sustatzeko asmoan. Eredu intergubernamentalak ez du estatuen arteko lehiakortasun egoistak gaintzea lortu, urgenteak diren erroka amankomunei aurre egiteko beharrezkoa litzatekeen erantzun kooperatiboak blokeatuz. Eredu federal tradizionalak aldiz, europar in-

12 Cheneval & Nicolaidis (2017)

13 Daniel (2014)

14 Goikoetxea (2017)

tegrazio prozesuaren funtsean zegoen herri aniztasunaren babesari muzin egiten dio askotan, aniztasuna deszentralizazio administratibo huts gisa ulertuz. Hau da, batzuentzat aniztasuna nazio-estatu subiranoen aniztasuna izango litzateke eta, besteentzat, nazio-estatuaren eredu erreplikatzeko duen erakunde baten barneko hiritar banakoen aniztasuna.

Eredu *dêmoikratikoa*¹², hemen sakon garatuko ez dudan arren, bi ikuspegiak barneratzen saiatzen da. Ez erdibideko irtenbide edo *third way* proposamen baten gisa, historiak dagoeneko frogatu baitdu halako saiakerek garapen motza eduki oi dutela, bi hauek oinarritik gaintitzen dituen proposamen gisa baizik. Izan ere, eredu *dêmoikratikoa* bi premisa ditu funtsean: batetik integrazio europarrak ezin duela bere barnean dituen demosen existentzia edo izatea ukatu, demos horiek osatzen dituzten hiritarrek hala ez erabaki ezean behintzat (demos-ak kontingenteak direla onartzen baitdu¹³). Izan ere, demos aniztasun hori ez da zerutik erori den zerbait, hiritarren burujabetza eta eskubideen lorpena baimendu duen gatazka eta progresu demokratikoen ondorioa baizik¹⁴. Bestetik, demos aniztasun horrek ez duela nahitaz batasun bat eraikitzearekin lehian egon beharrik. Argi eta garbi esateko – Brexit-aren ostean hau esatea polemikoa bada ere (batak bestearekin zer ikusirik ez duela esango nukeen arren) –; Europar Batasuneko kide izateak ez luke Westminster-go legebiltzarra bezalako erakunde demokratiko aitzindari baten irautearekin talka egin beharko. Batetik erakunde horrek zilegitasun osoa mantentzen duelako. Baina, batez ere, hala balitz integrazioaren funtsean egon beharko litzatekeen printzipio bat erasotuko litzatekeelako. Izan ere, integrazioak lehenagotik zeuden erakundeak bereak egiten ditu, integrazioaren ondoko erakunde sisteman erakunde nazional naiz transnazionalak, paper desberdina eduki arren, euren izatea elkarrengan justifikatzen dutelarik. Zentzu horretan, halako erakundeak integrazioan sartzeak erakunde horiek sendotu beharko lituzke eta, era berean, erakunde nazional horiek integrazio bera sendotu beharko lukete. Izan ere Europan errota dagoen demokrazia Westminster bezalako erakundeek ordezkatzeko duten herriek izandako bilakaeraren ondorioa baitda.

Hori litzateke eredu federalak, orain arte planteatu den moduan, aintzakotzat izan ez duen elementua: Europar Batasuneko erakundearen zilegitasuna, eta hauek bideratzen duten demokrazia, Europar Batasunak bere barnean duen erakunde aniztasunaren aurka osatuz gero ez dela erakunde hauek ordezkatzeko dituzten demos-ekin gatazka gaintzeko gai izango. Ondorioz, eta hau litzateke arazo nabarmenena: orain arte bultzatu den eredu federalak integrazioa eskatzen duten beharrak, prome-

sa berriak, jorratu beharrean eztabaida lurralde gatazkan mantentzen dutela hain zuzen ere. Eredu *dêmoikratikoa*, beraz, ez ditu hainbeste integrazioaren ikuspegi federalek bultzatzen saiatzen ari diren helburuak ukatzen, hauek lortzeko egokiagoa den ikuspegi bat sustatzen du baizik. Hau da, erronka amankomunei aurre egiteko beharrezkoa den erakundetzea demos aniztasun batekin bateragarria egiten saiatzen da, bide batez integrazioaren irakurketa teleologikoa gaintuz. Hau da, integrazioa beharrezkoa egiten duen erronka amankomunak ditugula onartuz ere, hauei aurre egingo dien erakundetzea automatikoa izango ez dela azpimarratuz¹⁵. Hare gehiago, dena delako integrazioa ezinbestekotzat duten ikuspegiaren parean, demokraziaren oinarrian dagoen hiritarren burujabetza aldarrikatuz.

Ikuspegi normatibo horretatik (izan beharko zitekeena eztabaidatzen duen eremua, hain zuzen ere) eredu *dêmoikratikoa* sendoa izateaz gain, integrazioa krisian dagoen testuinguru honetan politikoki ere ikuspegi emankorrako gisa agertzen da ere. Izan ere, abian dagoen kosmopolitizazioaz jabetu eta hartaz baliatzen da. Nola bait, kosmopolitizazioak hankaz gora jarri dituen lehen modernitateko erakundeak berriz pentsatzea du helburu, besteak beste zilegitasun demokratikoa eta funtzionalaren arteko oreka bilatzen saiatuz. Ikuspegi federal tradizionala eta intergubernalaren funtsean premisa bat ageri oi da: nazio-estatuaren ikuskera westphalia-koa. Ikuspegi horretatik, integrazioa nazio-estatuarekin edo nazio-estatuaren aurka egin behar da; bata ala bestea. Ikuspegi *dêmoikratikoa*, aldiz, nazio-estatuaren irakurketa horrekin talkan dagoen gizarte harremanen eraldaketa onartzen du. Hala, demos aniztasun edo *dêmoi* hori ez du nahitaz nazio-estatu aniztasun gisa ulertzen, faktu politiko¹⁶ aniztasun gisa baizik. Proposamen *dêmoikratiko* hau hiru printzipio nagusietan oinarritzen da: kulturarteko eredu erradikala, eskualdeetan errota erakundetzea eta autodeterminazio transnazionala.

Interkulturalidade radikalak solidaritate eta konfiantza loturetan duen eragina.

Erakundearen funtzionamendurako beharrezkoak diren hiritarren arteko loturak ez dira identitate faktore amankomunetan oinarritzen, edo ez orain arte ulertu den era estatiko eta aprioristikoan behintzat. Historian zehar hiritarren arteko lotura horiek nazio-estatu barnean ustez ematen ziren ezaugarri amankomunetan oinarritzen zirela esan izan da. Era perfektuan ematen ez ziren arren, espazio publikoan fikzio hau nahiko zabalduta zegoen eta, are gehiago, operatiboa zen. Ingurune kosmopolitizatuaren aldiz, fikzioaren operatibitatea bertan bera geratzear dago. Geroz eta arruntagoa den gizakion mugimenduak sortutako aniztasunaz gain, tokian-tokiko giza-banakoen nortasunen zabalkuntzak giza-taldeen aniztasuna izugarri altza du.

15 Nicolaidis (2016)
16 Cheneval & Nicolaidis (2017)

Jatorriak ez ditu jada, ez mugikortasunagatik ez eta burujabetzak nahitaez dakarren indibidualizazio erreflexiboagatik, identitate normalak sortzen. Testuinguru berrian, hiritarren arteko loturak, amankomunean dituzten erronken arabera definitzen dira, ez hainbeste ezaugarri amankomunetan oinarrituta. Honek ez du lurralde zehatz batekin lotura duten giza taldeek ardatz gisa dituzten ezaugarri komunak existentzia zalantzan jartzen, ezaugarri hauen arabera mugatutako nazio-estatuaren kontingentzia azpimarratu baizik. Hau da, tokian-tokiko elementu amankomunek (hizkuntza, ingurumena, bizipenak...) eta hiritarren arteko loturek garrantzia edukitzen jarraitzen duten arren, tokian-tokitik haratago geratzen diren erronkei aurre egiteko erakundetzearekin bateragarri egin behar dira. Nortasun homogeen baten gabezia ez da, zentzu horretan, erakundetze hori ukatzeko aitzakia, tokian-toki homogeneitate hori dagoeneko existitzen ez baita hain zuzen ere.

Espazio kosmopoliten erakundetzea eskualdeetan naiz eremu lokalean.

Ohiko erakundetzeak oinarritzen zituzten dinamikak gainditu izanak ez du esan nahi erakundeek garrantzirik ez dutenik. Izan ere, erakundeak lurralde zehatz batean bizi diren hiritarrei lotuak egoten jarraitzen dute. Kosmopolitismoak erronkarik badauka, lurraldetasuna da. Hau da, errealtatea kosmopolitizatu izanak ez du esan nahi tokian-tokiko bizipen eta nortasunak dagoeneko existitzen ez direnik. Ez da, beraz, hegazkineko hiritar kosmopolitaren falazia. Urte askoz globalizazioak tokian-toki gertatzen zen fenomenotzat hartu beharrean, esparru globalean ematen zen fenomeno huts gisa ulertu zen. Gaur egun aldiz, ustezko dikotomia horren balioa zalantzan dago. Izan ere, globalizazioak estatu nazioen mugak gainditu dituen arren - gertakari politiko, ekonomiko, kultural naiz sozialak bere mugetan gertatzen ez diren zentzuan -, gertakari globalizatuen ondorioak toki zehatzetan gertatzen jarraitzen dute. Hala ba, lurraldetasunaren ikuspegitik, erakundetze *dêmoikratikoak* logika disjuntiboa gainditu beharko luke (bata edo bestea logika, alegia), erakundetzea logika konjuntibo baterantz mugituz (bata *eta* bestea logika bat).

Auto-determinazio transnazionala.

Erronka amankomunen bilakaera tokian-toki desberdina den arren, tokian-tokiko interesetatik haratago pentsatzea eskatzen du. Autodeterminazioa, beraz, ezin da dagoeneko guztizkoa edo absolutua den subiranotasun edo burujabetza gisa ulertu. Autodeterminazio transnazionalak tokian-toki erabakiak hartzen dituzten erakundee-tan toki honen mugetatik at geratzen diren interesak aintzakotzat edukitzea eskatzen du. Ikuspegi tradizionalak, esate baterako, autodeterminazio aldarrikapenak

zituzten estaturik gabeko herrialdeak proiektu europarrarekin bateragarriak ez zirela planteatu du.

Izan ere, autodeterminazioa logika binarioa batean oinarritzen zen: independentea zara edo ez zara. Eta dagoeneko guztiz independentetzat dauzkagun 28 estatuaren arteko elkarlana zaila bada (laster, ziurrenik, 27), kopurua hau zabalduko balitz oraindik zailagoa izango litzateke. Ikuspegi *dêmoikratiko* batetik baina, Europar integrazioa testuinguru interdependiente batean ematen denez gero¹⁷, autodeterminazio hori ezin da era binarioan ulertu. Errealidade sub-estatalen aldarrikapenen bilakaerak, Eskozia, zentzuren batean Kataluniak eta orain Euskadin abiatzearekin dugun prozesuak logika binario hori gainditzen baita.

Ez baita estatuaren logika erreproduzitzean oinarritzen, eremu kosmopolita europarra erakundetzean baizik. Beste era batera esanda, eskualde eta eremu lokalen autodeterminazio aldarrikapenak, oinarri historiko abertzale edo nazionalista bat eduki arren, europar integrazioaren garapena oztopatzen duten estatu nazionalismoaren alternatiba gisa agertzen dira (edo agertu daitezke), ez horren erreproduzizio gisa. Ikuspegi *dêmoikratiko* batetik paradigma honek, beraz, autodeterminazio aldarrikapen horiek zilegiak izan daitezkeen lurraldetik haratago bizi diren hiritarren interesak aintzakotzat eduki ditzaten eskatzen du.

V. Ondorioa

Europak zer izan behar duen bi elementu eduki beharko ditu aintzakotzat: oinarrian duen errealtate plurinazional edo pluri-demos kosmopolitizatu eta orain arte lortutako erakundetze prozesuak dituen potentzialitateak. Benetan une konstituzional batean sartzen ari garela dirudien honetan, ez Europar Batasun mailan bakarrik, barneko erakunde maila anitzetan ere, eredu *dêmoikratikoak* funtsean dauzkan printzipioek ezinbestean gainditu behar ditugun erronka amankomunak eta Europa-ren erakunde maila desberdinen arteko tentsioak artikulatzeko bidea izan daitezke. Azken finean *dêmoikraziak* sustatzen dituen printzipioak errealtatearen eraldaketan oinarritzen dira, ez alderantziz. Modernitateetik garatu diren erakundeek bizirauteko asmorik badaukate (eta, bide batez, sustatzen dituzten printzipioen berma mantendu nahi badugu), abian dagoen kosmopolitizazioara egokitu beharko dira. Ez zait Europar Batasuna baino tresna egokiagorik bururatzen egokitze prozesu hau bideratzeko. Krisi europarra ez baita Europar Batasunaren krisia, Europan dauzkagun erakunde maila guztien krisia baizik. Beste era batera esanda, nazio-estatuaren oinarritutako Europar Batasunaren krisia, funtsean nazio-estatuaren krisia da.

V. Erreferentziak

- Albrow, M. (1996): *The Global Age*, Blackwell Publishers Polity Press, Cambridge
- Beck, U. (1997): *¿Qué es la globalización? Falacias del globalismo, respuestas a la globalización*, Paidós, Barcelona.
- Beck, U. (1999): *La sociedad del riesgo global. Siglo XXI de España Editores*.
- Beck, U. (2004): *Cosmopolitan Vision*, Polity Press, UK
- Beck, U. (2016): *The Metamorphosis of the World*, Polity
- Besson, S. (2009): 'The Authority of International Law – Lifting the State Veil', *Sidney Law Review* 31:3.
- Champeau, S. (2014) 'Populist Movements and the European Union' in Champeau, S., Closa, C., Innerarity, D., & Maduro, M. P. Eds. *The future of Europe: democracy, legitimacy and justice after the euro crisis*. Rowman & Littlefield International.
- Cheneval, F. (2011). *The Government of the Peoples: On the Idea and Principles of Multilateral Democracy*. Springer.
- Cheneval, F., & Nicolaidis, K. (2017): 'The social construction of democracy in the European Union' *European Journal of Political Theory*, 16(2), pp. 235-260.
- Gellner, E., (1983): *Naciones y Nacionalismo*, Alianza Editorial, Madrid (second edition 2008).
- Giddens, A. (1999): *Runaway world. How globalisation is reshaping our lives*. Profile Books.
- Goikoetxea, J. (2017): *Privatizing Democracy. Global Ideals, European Politics and Basque Territories*, Peter Lang.
- Hale, T. & Held, D. (2017): *Beyond Gridlock*, Polity Press
- Hansen, P. & Jonsson, S. (2015): 'Building Eurafrica: Reviving Colonialism through European Integration, 1920-1960' in Nicolaidis, K., Sèbe, B. & Maas, G. Eds. *Echoes of Empire: Memory, Identity and Colonial Legacies*, I. B. Taurus.
- Iglesias, M. (2006): 'Las causas de indeterminación del Derecho: una aproximación filosófica'. *Cuadernos de derecho público*; 28: 5582.
- Innerarity, D. (2014): 'Does Europe Need a Demos to Be Truly Democratic?', *IEQS Paper No. 77/2014*.
- Innerarity, D. (2017): *La Democracia en Europa*. Galaxia Gutenberg, S.L.
- Kochenov, D.; de Burca, G.; & Williams, A. Eds. (2017): *Europe's Justice Deficit*, Hart Publishing
- Nicolaidis, K., (2001): 'Conclusion: the federal vision beyond the federal state' in Nicolaidis, K., & Howse, R. Eds. *The federal vision: Legitimacy and levels of governance in the United States and the European Union*. Oxford University Press, Oxford.
- Nicolaidis, K. (2013): 'European democracy and its crisis.' *JCMS: Journal of Common Market Studies*, 51(2), pp. 351-369.
- Nicolaidis, K. (2016): 'My Eutopia: Empathy in a Union of Others' in Segers, M. & Albrecht, Y. (ed), *Re:Thinking Europe, Thoughts on Europe: Past, Present and Future*, Amsterdam University Press
- Nicolaidis, K. & Viehoff, J. (2017): 'Just boundaries for democrats', *Journal of European Integration*, 39:5, 591-607



EDURNE TERRADILLOS

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Profesora Titular de Derecho del Trabajo y Seguridad Social. EHU TALDEA: EUROPA,
ENPLEGUA ETA LANEKO HARREMANAK GIU17/059

La Europa social en crisis?: Luces y sombras

I. Introducción

Este trabajo se enfoca a reflejar qué modelo social europeo tenemos, así como a relatar de dónde venimos y hacia dónde vamos, reflexión que se moverá no tanto en el ámbito material de los temas en los que la Unión Europea (UE) tiene competencia para legislar, como en los instrumentos que esa UE está utilizando para reforzar, si acaso, su modelo social.

Por ello ya desde este momento cabe traer a colación el Libro Verde “Modernizar el Derecho laboral para afrontar los retos del siglo XXI”² que propuso en 2006 la modernización del Derecho laboral a través del Método Abierto de Coordinación, técnica del “soft law”. Siguiendo a ALONSO GARCÍA³, éste es un fenómeno que presenta las características del Derecho –restringir la libertad de sus destinatarios- pero al que le falta algo de su naturaleza jurídica o vinculante.

El objetivo final de la Comisión, recogido en el Libro Verde, era “asociar nuevas formas de trabajo más flexibles con unos derechos sociales mínimos para todos los

1 Libro Verde de la Comisión, de 22 de noviembre de 2006, «Modernizar el Derecho laboral para afrontar los retos del siglo XXI» [COM (2006) 708 - no publicado en el Diario Oficial].

2 Sobre el soft-law, véase ALONSO GARCÍA, R., “El soft law comunitario”, *Revista de Administración Pública*, 154, 2001, págs. 63-94. Siguiendo a este autor, los instrumentos que se engloban en esa acepción son muy diversos (recomendaciones y dictámenes, libros blancos, verdes...) y entre las propiedades que mejor lo conceptualizan, deben destacarse las siguientes:

1) puede servir de parámetro interpretativo del hard law (p.e.: para atenuar las responsabilidades que pudieran derivarse de las infracciones de éste).

2) puede servir para determinar la entrada en juego de principios generales del Derecho dotados, estos sí, de fuerza jurídica obligatoria (p.e.: non venire contra factum proprium).

3) puede servir para producir efectos “ad extra”, es decir, en la esfera jurídica de los Estados miembros y ciudadanos.

4) puede tener efectos “ad intra”, para influir en el funcionamiento del aparato institucional comunitario: códigos de conducta de la Comisión, reglamentos internos de las instituciones comunitarias, Libros Blanco, Verde...

Por su parte, SENDEN, L, *Soft law in European Community Law*, Hart, América del Norte (US y Canadá), 2004, pp. 107 y ss, después de analizar las posiciones de la doctrina en torno a un concepto de “soft” law y después de defender que esa definición debe huir de los parámetros del Derecho interno y del Derecho Internacional, ya que nos encontramos en el ámbito del Derecho de la Unión, que cuenta con instrumentos jurídicos propios, propone una definición de soft law como “rules of conducts that are laid down in instruments which have not been attributed legally binding force as such, but nevertheless may have certain (indirect) legal effects, and that are aimed at and may produce practical effects”.

trabajadores” (p. 6). El Libro relataba qué medidas se habían de ido adaptando para lograrlo. De ahí que se citaran las dos directivas sobre el trabajo a tiempo parcial y el trabajo de duración determinada, que recogían en un Anexo los acuerdos marco de los interlocutores sociales europeos sobre esas mismas materias; así como el acuerdo marco sobre el teletrabajo de 2002, que prescindió de la fuerza vinculante que le hubiese otorgado una directiva; hasta la mención de la Propuesta de directiva relativa a las condiciones de trabajo de los trabajadores cedidos por empresas de trabajo temporal. La relación de instrumentos normativos – más o menos vinculantes- no es baladí, sino que tiene como misión reflejar el recorrido por el que transita el Derecho laboral europeo, de más Derecho a menos Derecho, si entendemos el Derecho por normas o principios con naturaleza vinculante. Tan es así que en el Libro Verde se plasmó lo que ya se conocía (p. 7):

“La protección de las condiciones laborales y la mejora de la calidad del trabajo en los Estados miembros depende fundamentalmente de las legislaciones nacionales y de la eficacia de las medidas de aplicación y control a escala nacional. A escala de la Unión, el acervo social sostiene y complementa las acciones de los Estados miembros en este ámbito”.

Pero, ¿cómo sostiene y complementa la Unión esas acciones? Obviando ya la creación del Derecho comunitario a través del método tradicional, Reglamentos y Directivas, es sintomático que el Libro Verde se refiera a una serie de instrumentos políticos para abordar esas tareas, instrumentos “como el diálogo social de la UE y medidas financieras como el Fondo Social Europeo, Progress y la propuesta de Fondo Europeo de Adaptación a la Globalización” (p. 7). Diálogo social y medidas financieras son los dos ejes de un apoyo y complemento a las acciones de los Estados miembros en el ámbito laboral que se avistaban ya a corto-largo plazo, y que serían completados con “la coordinación de las políticas de empleo con la asociación para el crecimiento y el empleo y el método abierto de coordinación”³. Es más, la Comisión describía en qué consistían estos métodos, en la medida que “combinan objetivos concretos y objetivos políticos establecidos a nivel de la Unión –que se traducen en planes nacionales–, el uso de referencias y de indicadores para determinar los avances realizados, el intercambio de experiencias y la evaluación por pares para sacar las enseñanzas de las buenas prácticas”.

El trabajo que se aborda a continuación parte de dos premisas y se apoya en una hipótesis. Las premisas son de sobra conocidas y atienden a que no hay un Derecho Social Europeo y a que la protección de las condiciones laborales y la mejora de la calidad del trabajo dependen fundamentalmente de las legislaciones nacionales.

Como hipótesis se propone que la extensión del “método abierto de coordinación” a materias distintas para las que se contempló está alterando la fuente originaria de creación de Derecho Social Europeo, tanto como debilitando la fuente derivada característicamente armonizadora de la política social: la directiva social. Y esa tendencia alcanza hasta el recién presentado Pilar de Derechos Sociales.

II. ¿Qué ha impedido construir un derecho social europeo?

La situación actual del Derecho social europeo recuerda la de la legislación obrera de los postreros años del siglo XIX y principios del XX. No hay una intervención sistemática en esta materia, sino que la acción normativa de la Unión se ha proyectado sobre determinadas parcelas del empleo y la política social. Se trata por tanto de un “Derecho troceado” que, por esa misma razón, no puede calificarse como “Derecho”. Entre los factores que han desencadenado esta situación, se deben citar los siguientes:

1. La Filosofía liberal originaria de la Unión Europea y la inicial falta de intervención en la política social.

31 Véase, por todos, Terradillos Ormaetxea, E., "El principio de proporcionalidad como referencia garantista de los derechos de los trabajadores en las últimas sentencias del TEDH dictadas en materia de ciberderechos: un contraste con la doctrina del Tribunal Constitucional español", *Revista de Derecho Social*, n. 80, 2018.

32 Morte/Salinas, "Los derechos económicos y sociales en la jurisprudencia del TEDH", en *Los derechos económicos y sociales* (dir. Embid Irujo, A.), *Iustel*, 2009, pp. 378 y ss.

33 ROJO, p. 35. El Parlamento insta a la Comisión que presente un pilar cuyos contenidos "refuercen los derechos sociales mediante instrumentos concretos y específicos (legislación, mecanismos de elaboración de políticas e instrumentos financieros), que repercutan positivamente en las vidas de las personas a corto y medio plazo y que permitan apoyar la construcción europea en el siglo XXI defendiendo realmente los objetivos sociales de los Tratados, apoyando los sistemas de protección social nacionales, reforzando la cohesión, la solidaridad y la convergencia ascendente en los resultados económicos y sociales, garantizando una protección social adecuada, reduciendo las desigualdades, logrando los progresos en materia de reducción de la pobreza y la exclusión social que ya deberían haberse logrado hace mucho, facilitando los esfuerzos nacionales de reforma mediante la evaluación comparativa, y contribuyendo a mejorar el funcionamiento de la Unión Económica y Monetaria (UEM) y del mercado único de la Unión...".

que va a imitarse? O ¿qué debe entenderse por “buenas prácticas? Parece claro que falta un consenso sobre cuáles son los criterios que se barajan para decidirlo: ¿cualitativos –de aumento de derechos laborales- o cuantitativos –de mejora de los indicadores económicos: más empleo, menos IPC, etc.?

En fin, al ser el empleo y, por extensión, la política social, materias muy ligadas a áreas sobre las que la Unión tiene la competencia exclusiva, no parece descabellado declarar que el soft law aplicado al empleo o a las demás materias a las que se ha extendido, puede resultar más influyente que lo previsto. Esta conclusión puede extenderse a la política social, de siempre, supeditada a las políticas económicas y a la libertad económica por excelencia: la libre prestación de servicios. Las sentencias del TJCE (Laval, Viking y Ruffert) vienen a corroborar este pronóstico.

Por otro lado, entre los autores, existe el creciente desvelo ante la relevancia que está adquiriendo el MAC y ante el riesgo de que el MAC se convierta en la vía alternativa al método tradicional de creación de Derecho. Entre los factores que favorecen esta preocupación destacan la ampliación de la Unión y el necesario respeto de la diversidad cultural, histórica y económica que siguen pidiéndose por parte de los EEMM; así como los altos niveles de desempleo y la creencia de que el MAC es un método de resultados. Que el MAC legitima a los Estados miembros para introducir medidas de adaptabilidad y flexibilidad de los mercados de trabajo, asoma también como una razón de peso a favor de esta segunda tesis, legitimación que, asimismo, se proyecta sobre la Unión, que, con el MAC, “ahorraría” en procedimiento legislativo y no tendría que atender o respetar el principio de subsidiariedad. Además, hemos comprobado cuán rápidamente se está transformando el soft law en hard law, esto es, el peso específico con el que cuenta lo dispuesto en los variopintos documentos redactados por el órgano más dinámico en cuanto a producción normativa se refiere: la Comisión europea. Las propuestas que la Comisión, con indudable componente ideológico, que van insertándose en los distintos documentos del soft law, están calando en todas las sociedades de los distintos Estados, hasta el punto de que conducen a cambios normativos o, cuando menos, se mencionan en las Exposiciones de Motivos de nuestras normas (véase el elenco de reformas del mercado de trabajo de 2012³⁴). Pero, no sólo es preocupante lo anterior; además hay que advertir de los riesgos que entraña la inclusión de la “sociedad civil” entre los sujetos legitimados para proponer ese Derecho “blando”, por las dificultades que conlleva la selección de las asociaciones que pueden participar, las incertidumbres que plantean las fundaciones, cuyos fondos económicos son ocultados a la sociedad y no pueden ser controlados por el poder

político... además de que quedaría en pie otro interrogante, que seguramente no es el último: esa suma de intereses, ¿puede conformar un interés general?

Por eso, hay autores que alertan sobre el serio riesgo de vaciar de contenido al llamado “Derecho social europeo”, que, por pronóstico agorero no hay que dejar de considerar. En ese sentido, debe recordarse que el MAC ha empezado a extenderse a cada vez un mayor número de áreas normativas y pudiera sustituir al método tradicional de creación de Derecho en el ámbito europeo. Incluso podría sostenerse que la fórmula del MAC ha empezado a “afectar” la creación de Derecho estatal. En suma, el Derecho nacional pudiera verse infiltrado, gota a gota, por esa otra forma de creación de Derecho europeo sin sanción.

IÑIGO BULLAIN

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Testu honekin nire asmoa da europar integrazio prozesuaren deriba distopikoa salatzea. Horretarako, globalizazioaren analisi kritikoa egingo dut, integrazioa globalizazioaren baitan bideratzen ari delako, eta haren ezaugarri oligarkikoak Europan ere islatzen direlako, islatu ere, Europar Batasunak garatzen dituen orientabide ekonomiko eta politikan edo Batasunak duen egitura instituzionalean. Honen adibide gisa erabiliko dut euroaren krisialdiaren azterketa. Amaitzeko, gero hurbilean integrazioaz espero datekeenaz gogoeta batzuk aurkeztuko ditut eta sarbidean garaiko neoabsolutismoaren sasoiaz burutapen batzuk plazaratu.

Europaren Distopia Globalizazio Oligarki- koan

“The issue of oligarchy and wealth and income inequality is the great moral issue of our time, it is the great economic issue of our time and it is the great political issue of our time, yet it gets very little coverage from the corporate media”,

Bernie Sanders. U.S. Senataria¹

I. Sarbidea: Neoabsolutismoaren garaia.

Kapitalismo globalizatua deskribitzeko neoliberalismoaren izendapena sarri erabili ohi da azken hamarkadotan. Aitzitik, banago “neoabsolutismo” terminua egokiago dela eguneango kapitalismo globala azaltzeko, ezen hainbat zioengatik neoabsolutismo hitzak hobeki islatzen baitu “egiatan existitzen” den globalizazioa. Aldiz, neoliberal izendapenarekin liberal ez diren ezaugarriak liberalak bailiran ulertarazten dira, baita aditzera eman ere neoliberalismoa dela liberalismoaren berriztapen gaurkotua. Uste horiek alabaina ez datoz bat liberalismoaren iraganarekin eta zerkusi gehiago dute absolutismoarekin liberalismoarekin baino. Absolutismo terminua etimologikoki absolvere kontzeptutik omen dator, hau da, arduradun ez izatea, inpunitateaz gozatzea. Ikuskaketa instituzionaletik ihes egitea izan zen Eraentza Zaharrean boterea definitu zuen ezaugarriaren bat, non monarka erantzunkizun gabekoa zen. Egun, instituzio ez maioritarioetara erabaki politikoen transferitzearekin, nola EBn gertatzen ari den², bidea ematen zaio erantzukizun politikoa desagertarazteko, horrela absolutismo politiko eta ekonomiko berria eratuz. Maila mikroekonomikoan ere, jabeagoari loturiko erantzukizunak lausotzen ari dira inbertsio fondoen bitartez, jabeagoaren trazabilitatea zailtzen delako inpunitatea bermatuz.

Absolutismoaren ideologiaren arabera, instituzioek ez zioten botereari inongo muga

¹ *The Nation*, March 18, 2018. Gai honetaz, salbuespenak salbuespen, unibertsitateak ere ez ikusiarena egiten du.

² *Ministro Kontseiluan eta Europar Kontseiluan erabakitze prozesuari inguratzen zaion opazitateaz, vid., Gemma Mateo Gonzalez. Negociaciones Intergubernamentales en la Unión Europea. Cuadernos Europeos de Deusto nº 55/2016, pp. 85-118.*

7

eta loturarik ezarri izan behar, gaurko neoliberalismoak nahi duen bezela. Orduko erregeak, gaurko merkatuek bezala, libre izan nahi ziren kontrol publikoetatik. Liberalismoa, ordea XVIII. mende inguruan sortu zen, hain zuzen, botere absolutistari mugak ezartzeko asmoz. Liberalismoa lerratu zen, absolutismoaren ezaugarri ziren monopolismo eta estatuaren interbentzioaren aurka ekiteko. Orduan, Koroak, diru truke, monopolioen sorrera errazten zuelako eta horrek merkataritza zaildu egiten zuelako. Horrexegatik, *laissez faire, laissez passer* lelo famatua, liberalismoaren ikurra izatera bihurtu zena, monarkiaren abstenzionismoa eskatzeko. Baina bistan denez, printzipio liberal haiek zerikusi gutxi dute korporazio handiek estatu eta botere publikoetatik jasotzen duten tratu pribilegiatuarekin. Ezen instituzio publikoen zeregin nagusienetako bat bihurtu da korporazioei dirulaguntzak opatzea edo zergetan bonifikazioak ematea. Neoliberalismoak, lehengo kontrol demokratikoak lausotu egin dituelako, antz handiago du absolutismoaren asmorekin ezen ez liberalismoarenak izan zirenekin. Esaterako, Europar Batasuna-ren markoan gobernu ekonomikoa erakunde ez maioritarioei esleitu zaie: Europar Batzorde, Europar Banku Zentrala, edo Eurotaldea bezalako eskuetan utziz, ezen bide horretatik hiritarlegoari ihes egiten baitzaio erabakien gaineko kontrol politikoa eta ordea oligarkiari erraztu egiten zaio gizartearen kudeaketa.

Globalizazioa, mugak desitxuratzeaz gain, despotismo berria sustatzen ari da. Nola lehen absolutismoak gainditu zituen zatiketa feudalak, orain neoabsolutismoak goreneko eta trinkoago den boterea sustatu nahi du³. Ezagun denez, gaurko integrazio prozesuan, ekonomia, Estatu-nazioa eta legedi nazionalak gero eta baldintzatuago daude kanpoko indar globalengandik eta tokian tokiko agente politiko, ekonomiko eta sozialek kontrol partziala eta errelatiboa baino ez dute lurralde eta populazioaz. Ordea, joan zen mendeko laurogeiko urteetatik hona, banka finantziarioaren eta korporazio handien kontzentrazio operatiboak ahalbideratu egin du Planetan zehar sakabanaturik dauden milaka enpresa saretan lotzea, horrela, kapitalismoa kapitalista kolektibo bihurtu duelarik. Espansiozko logika honek, Hobsonek eta Leninek aztertua inperialismoarekiko⁴, mende bat geroxeago monopolista gutxi batzuei ahalbideratu die gizarte kapitalistaren isuri merkatal eta produktiboa marku globalean kontrolatzea⁵.

Gaur, aldi absolutistan bezala, botere politikoak lege dibino omen den bati men egiten dio: merkatuarenari. Merkatuak bere burua aurkezten baitu eztabaidaezin bailitzan. *Deus est machina* suerte bat da noren eta zeren aurrean inori ez dagokion

beste ezer posiblea legoenik ere pentsatzea. Horren adibide, "Historiaren bukaera"-ren paradigma fukuyamikoa edo "Le Marché cest moi" pretentsioa, FMI, Troika edo EBZ bezalako erakundeek gorpuztu nahi dutena. Hala nola lehen despota absolutuei, bada egun erakunde horiei obeditu behar zaie; beren mandamentuak, ebangeliko bailiran, dudatan ipintzen ezin daitezke. Gobernantza ekonomikorako eratu diren instituzioek islatzen dute zer neurri eta heinetaraino iraultza kontserbatzaileak erdietsi duen eragin sakona. Ezen hamarkada gutxitan mundua iragan da demokrazia parlamentarioan eredu izatetik Estamentu Global berri baten sorrera bultzatzera.

Nola Eraentza Zaharrean estamentu pribilegiatuek fiskalitateari uko egiten zioten, egun korporazio eta fortuna handiek ere ez dute apenas zergarik ordaintzen. Lehengo grabamenak, jabeagoari atxikiak ziren haiek, nola petxak edo zentzoak, garai hartan nobleziaren edo Eleizaren faboretan ezarriak nekazari jabeak kalteetan, Frantses Iraultzak abolitu zituenak, globalizazioaren markoan bihurtu egin dira patente eta jabeago intelektualari loturiko exakzioak. Eta nola lehen abusoak justifikatzen ziren Estatuaren Arrazoian, orain erreskate bankarioak justifikatzen dira Merkatuaren Arrazoian. Gaurko garaian botereen kontzentrazioa gauzatzen ari da oligarkia baten mesederako eta demokrazian ezaugarri izan zen botereen dibisioa eta kontrolak desagertuz doaz. Adierazpen absolutista zaharra: behialako Rex, lex (erregeren hitza lege) bihurtu da Lex Merkatoria, berori baita goreneko iturri botere neoabsolutistaren legitimaziorako.

Globalizazioak erraztu eta samurtu egin du alor ekonomiko gehienetan boterearen kontzentrazioa⁶ prozezu produktiboetan integrazio bertikal zein horizontala azkartuz. Eremu finantzioan eratu den oligarkia kreditizioak ardura politikoak bereganatu ditu globalizazioaren kudeaketan. Horrela, kreditu hartzaileen gaurkoturiko diezmoak estatu askotan jada heltzen dira aurrekontuen %20 izatera, zorraren ordainketa BPG-aren % 5-10 izatera hurbilduz. Egundak, korporazio handiek (150 inguru) Züricheko IT-aren arabera, estatu gehienek kudeatzen dutena baino ondasun handiago darabilte eskuetan. Munduko 100 ekonomia handietatik erdia baino gehiago antolaketa korporatiboak dira, hau da, lireneko G-100 estatuen ordezkariak gutxiengoan leudekete, eta globalizazioak aurrera egiten duen heinean haren proportzioa txikiagoa litzateke. Kontzentrazioak, dela entitate finantzio, hedabide, automozio industria, farmazia, elikagai, altzairuan ... orokortu egin dira eta alor gehienetan dozena erdi enpresek merkatu mundiala kontrolatzen dute. Esaterako, Europar Batzordeak Bayer-i baimendu dio, alemaniar enpresa industri farmazeutikoan lidergoa duenari, Monsanto erostea, berau estatubatuar enpresa lurlangint-

3 Perry Anderson. *El Estado absolutista. Mexico: Siglo XXI 1992.*

4 Vid., Hauner, Thomas; Milanovic, Branko; Naidu, Suresh. "Inequality, Foreign Investment, and Imperialism". MPRA, Uni München 30/11/2017. Egileen arabera, badaude datu nahikorik XX.mendearen hasieran Hobson eta Lenin-ek aurreratu zuten tesia baiestatzeko: desberdintasuna loturik dagoela atzerrian ongiak eta baloreak jabetzearekin eta honek militarizazio eta gatazka-goreneko arriskua dakarrela.

5 Datu batzuk in Anderson, Sarah. eta Cavanagh, John. *Top 200: The Rise of Global Corporate Power. Corporate Watch 2000. Global Policy Forum.*

6 Nigra, Fabio Gabriel. *El neoabsolutismo: zetapa neoliberal (y superior) del imperialismo. Política y cultura (on line) 2005, nº 24, pp.62-96.*

zako arloan lider dena pestizidak eta hazi transgenikoetan. Bi urte lehenago eginik, fusio eskaria 66.000 mila miloi dolarrekoa izan zen, historian handienetariko bat. Bayer-ek baditu 117.000 enplegatu munduan eta operazioak jasoko du 57.000 mila miloi dolarreko kreditozubia zenbait inbertsio bankurengatik: Merrill Lynch, Credit Suisse, Goldman Sachs, HSBC eta JP Morgan. Bayer-en legatua gizateriari, aspirinaz gain, Zyklon B deituaren ekoizpena izan zen, miloika pertsona gaseatzeneko balio izan zuena, eta Monsanto-ri zor zaio agente laranja edo glisofatoa, bi belarhiltzaileen nahasketa, Vietnam gerran EE.BB. etako armadak erabili zuena populazio zibilean milioka hil eta larri zaurituz. Uste da Bayer-ek eta Monsanto-ek elkarrekin fakturatuko dutela 23.000 miloi dolar urtean; Syngenta eta Chenchina 14.800 miloi eta Dow Chemical eta Dupont, 14.600 miloi. Horrela haien artean merkatu mundial erdia beteko lukete, 85.000 miloi euro mugitzen duena urtero⁷.

Oligarkizazioarekin batera etorri dira prezioen igoera adostuak, zerbitzuen kalitate apalagoa, plantilak murriztea edo soldaten txikitzea. Fusio eta enpresen absorzioen haritik ondorio hauek nonahi biderkatu dira. Beraz, hazkunde ekonomikoa moteldu egin da, eskari gehitua laburtuz kontsumoaren gaitasuna gutxietsi dutelako. Bestaldetik, gainproduktioak ekarri duen etekinen laburkerak eragina izan du kapitala espekulaziora bideratzeko, zeregin produktiboetan inbertitu beharrean. Horrela, krisialdiei loturiko arriskuak emendatu egin dira, kapitalen mugikortasunaren abiadura handitu egin denez gero eta inbertsioak epe laburrari begira egiten direnez gero.

Globalizazio neoabsolutistan korporazio handiek balore kateak koordinatzen dituzte. Esaterako: finantziazio, diseinu, produkzio, enbalaje, garraio, banaketa, publizitate, asesoria legal eta beste, edo lobismoari atxiki zereginak. Nazioarteko balio kateetan naziotasun eta herrialde diferenteko enpresak batzen dira, kostu, gaitasun eta eraginkortasunaren irizpideen arabera. Kapitalismoa azken hamarkadetan bolumen handiko produktioetik balio handiko produktiora eraldatu da, eta egun nazioen artean trukutzen dena ez dira hainbat produktuak nola berezitasunak: ikerketan, fabrikazioan, diseinuan, publizitatean... Munduko sareetan produktuek "made in xxx" adierazi arren, ezkutuan erakusten dutena da nazioarteko konbinaketak direla. Estatuaren artean trukutzen dena gutxiago dira bukatutako produktuak, ezen ez balio kate berean preproduktioetik postsalmentaraino dauden gaitasun desberdinak. Globalizazioan gertatzen ari dena argiago erakusteko, balia dezakegu Robert Reich irakaslearen 90.hamarkadaren hasieraren aurkeztu zuen adibide klasikoa:

"Estatubatuar batek General Motors-i Pontiac Le Mans erosten dionean, ohartu gabe nazioarteko transakzioa egiten ari da. Ezen General Motors-i ordaintzen dion 10.000 dolarretik, 3.000 inguru Hego Koreara baitoa, non rutinazko lanak eta montajearen operazioak egin izan diren; 1.750 dolar Japoniara doaz puntako osagaiak fabrikatzeagatik (motorrak, norabide ardatza eta baliabide elektronikoak); eta 750 dolar Alemaniara, diseinu eta prototipoaren proiektuengatik; 400 dolar Taiwan, Singapur eta Japoniara osagai txikiengatik; 250 dolar Britainia Handira marketing eta publizitate zerbitzuengatik; eta 4.000 dolar inguru heltzen zaizkie Detroiteko bitartekari estrategikoei, New Yorkeko abokatu eta bankariei, Washington-eko lobistei, herrialde osoko aseguretxeei eta General Motors-eko akziodunei –haietako gehienak estatubatuarrik izan arren, goranzko zenbakitan kanpotarrak ere baitira"⁸.

Adibide famatu horretatik kasik hogeita hamar urte igaro ondoren, bistakoa da balio kate globalen osaketak orokortu egin direla arlo ekonomiko gehienetan. Horrekin, eta globalitatearen kudeaketa bermatu ahal izateko, maila kontinentaleko edo mundo osorako kontrol aparatuen beharrak ekarri du erakunde politiko, ekonomiko edo administratiboaren sorrera. Baina nazioarteko erakundeez eta estatudun nazioez haratago⁹, badago halaber, maila globalean, beste dimentsio bat kontutan hartu behar dena analisiak egiterakoan: korporazioen dimentsioa. Ezen, EB zein EE.BB. bakoitza BPG globalaren %25 inguru izan arren, EE.BB.etan egoitza duten korporazioek munduko aberastasun erdia kudeatzen dute. Eta aldiz, Europan egoitza duten multinazionalak askoz gutxiago dira. Europar Batasunean egoitza duten korporazio industrial handienak dira: Siemens /Alemania/elektronika); Thyssen Krupp (Alemania/Makinaria); Bayern eta Basf (Alemania/Kimika); Saint-Gobain et Bouygues (Francia/Eraikuntza); Nokia (Finlandia/Telekomunikazioak); Arcelor (Luxenburgo/Altzairua); Daimler-Chrysler(Alemania/Automozioa) eta tamainuan handiena BP (Erresuma Batua/Petrolia), urtean 200.000 mila miloi euroko sarrera dituen. Shell/Royal Dutch eta Total-ekin batera Europako petroleo industriaren zutabeak direnak. Edozelan ere, analisisa osatzeko, jakin behar da ezen korporazio amerikarren etekinen %35 inguru europar paradisu fiskaletan daudela, Herbeheretan, Irlanda, Luxenburgo edo Belgikan¹⁰.

Estatudun nazioak dira neoabsolutismoaren beste isla. Demokrazia nazionalak lurraldeko espazio berean botere absolutistak eraturiko estatuari jarraipena bermatu diote. Esaterako, espainiar nazioak edo frantses errepublikak kontinuitatea eman zioten absolutismo borbonikok eratu zuen estatu botereari. Demokrazia zentzutariora

8 Reich, Robert. B. *El trabajo de las naciones. Hacia el capitalismo del siglo XXI*. Madrid: Vergara 1993, p.121.

9 Globalizazioarekin datozen asimetriei, vid., Nicolás Mariscal. *La Unión Europea en la Gobernanza Global*. Cuadernos Europeos de Deusto, nº 56/2017, pp. 181-204.

10 Datu hauek bildu dira "Panama Papers" delakoetatik ICIJ-k egindako analisiaren ostean. Dokumentuak Appleby abokatu bufete "offshore"ri atarazi zizkieten. Vid., *El Confidencial* 06/11/2017.

absolutismo monarkiko zenaren orde heldu zen, eta hola, nazioaren sakralizazioak kontinuitatea eta iraupen ematen dio lehengo sakralizazio monarkikoari. Frantziar errepublikak eta Espainiar Erresumak gorpuzten dute beraz trabestismo nazional absolutista delakoa. Dena dela, globalizazioarekin demokrazia nazionalen geroa ezezaguna da oso¹¹, bereziki EB bezalako estatuez gaineko markoan¹². Nazioarteko berrantolaketa horien aurrean erreakzio nazional-populistak, Front National edo Ukip bezalakoak, izan dira, txiroen arteko gerra xenofobikoak (bertoko eta kanpokoan artean) antolatzen saiatzeko. Bitartean interes oligarkikoak indartzen ari dira Macron edo Ciudadanos bezalako jarrera europarazaleen bidez, haien ikuskerak EB-k bultzatzen dituen politika eta botere eredu neoabsolutistekin bat egiten direlako¹³.

II. Europaren Distopia eta Globalizazio Oligarkikoa.

1. Globalizazio oligarkikoan barrena.

Espekulazio hutsa bada ere, ez dut uste Monnet, De Gasperi edo Adenauer pozik leudekeela integrazioak hartu duen egokera eta eitearekin. Erdietsiriko emaitzak gutxietsi gabe (merkatu bakuna 28 estatukideentzat, txanpon eta hiritartasun partekatutak ehunka miloi lagun artean eta instituzio komunak hainbat arlotarako), bistakoa da oraino ere oso urrun gaudela Ventotenekoa Manifestoan Altiero Spinelli eta Ernesto Rossi aldarrikatu zuten "libertatean eta elkartasun sozial estuan sustraituriko Europar Federazio" hartatik¹⁴. Halaber ez dut uste Aguirre, Landaburu edo Irujo kontent liratekeenik Europa honekin, Catalunyan eskaera demokratikoak ignoratzen dituen edo errefuxiatuei, beraiek izan ziren bezala, muzin egiten dien honekin. Europazaletasunak Europa gehiago aldarrikatzen duenean, eskaera horrekin bere proiektuari kalte egiten dio baldin eta integrazioan sakontzearekin Batasunak egitasmo antisozial eta egitura ez demokratikoa sustatzen laguntzen badu. Hagan bilduriko europazaleek inspirazio iturri izan zuten bakean, demokrazian eta justizia sozialean. Ordea, egungoak, dirudienez, Davos gisako konklabetara joaten dira argitasun bila. Joan ere, hara non munduko plutokrazia elkartzen baita eta nondik eta heraldo batzuen bitartez mezuak eta estrategiak barreiatzen baitira nazioarteko eta tokian tokiko instituzio eta organizazioetara, EBn eta Euskadin ere, artzantza ekonomikoaren bitartez eragina lortu arte¹⁵.

Neoliberalismoak, tabu hitza bere bidaide eta propagandistentzat, kapitalismo finantziarioan eta korporazio handietan ditu habeak. Horren ondorioz bistakoena da garatu den desberdintasun erraldoia. Muturreko aberastasuna metatzen dutenen eta akumulazio horretatik at dagoen gaineko biztanleriaren arteko diferentziak etenik gabe handituz doaz herrialde gehienetan, %12ko erritmotik gora 2010etik hona. 42 lagunek omen dute munduko populazio erdiak duen bezainbeste ondasun, hau da, 3.700 miloi lagunek dutena bezainbeste. Beste era batez esateko, %1ek %99aren bezainbateko ondasuna pilatu du. Tamaina horretako berdintasun ezak demokraziaren oinarriak kolokan jartzen ditu¹⁶. Munduko ekonomiak azken 30 urteotan igi besterik egin ez duen arren, egun 78 biloi dolar izatera heldua delarik, beronen ondasunaren banaketa gutxi batzuen mesedetarako bideratu da, 2017an sorturiko aberastasunaren %82 bereganatu baitzuen %1ek. Zuricheko Teknologia Institutuaren ikerketa batek erakusten duenez, 150 korporazio handi merkatu globalaren jaun eta jabe egin dira. Haien jabetza nagusia bi mila milamilionarioen artean banatzen da zeintzuek plutokrazia globalaren nukleo gogorra osatzen baitute.

Globalizazio neoliberalarekin kapitalen zirkulazioa bermatu den bitartean, lana sakabanatu egin da. Azken hiru hamarkadetan bi mila eta bostehun miloi langile gehitu dira merkatu mundialera eta honen ondorioz nagusia izan da lanaren prekarizazioa. EE.BB.etan, esaterako, Wall-Mart, enpresa lan emale handiengan, langileriaren erdiak hilerio jasotzen dituzte laguntza sozialak, soldaterekin bizitzeko lain ez dutelako. Europan, beste aldetik, 27 miloi gazte, Beneluxeko biztanleriaren haina, langabezian dago. Ez han eta ez hemen lan merkatuaren erreformek ez dute kalitatezko lan gehiago ekarri. Aitzitik, erreformek merketu eta erraztu egin dituzte kaleratze eta azpienplegua. OITren arabera, 2017an enplegu mundialaren %42 prekarioa zen. Herrialde garatuetan oraindik %10 izan arren, Euskal Herrian 2017an kontratuen %93 behin-behineko ziren eta erdia baino gehiagok ez zuten 30 eguneko lanaldia gainditu¹⁷. IBEXeko enpresetako direktiboek beren enplegatuek baino 100 bat aldiz gehiago irabazten dutelarik eta. Espainian, batz besteko pentsioa 1000 euro izatetik urrun dago, %46k hilerio 736 euro baino gutxiago kobratzen duelarik¹⁸, aitzitik, Naturgas-eko kontseilari delegatuak, Rafael Villaseca, 3,6 miloi euro kobratu du eta, horrez gain, 15,2 miloi euroko indemnitazioa jaso zuen enpresak bere kontratua eten izanagatik¹⁹. Beste aldetik, Arias Cañet, espainiar Batzordeko denak, hilean 20.000 euro irabazteaz gain Energia eta Ekimen Klimatiko komisario izan zenagatik, pentsio bat ere kobratzen du, Luxenbur-

11 Goikoetxea, Jule. *Privitizing Democracy. Global Ideals, European Politics and Basque Territories*. Bern, New York: Peter Lang 2017, bereziki, *Global capitalism, Democracy and the European Union*.

12 Desparlamentarizazioaz ikuskerak lasaigarria in Daniel Innerarity. *La representación de los europeos: sobre las posibilidades y límites de la parlamentarización de la Unión Europea*. Cuadernos Europeos de Deusto, nº 56/2017, pp. 163-179.

13 Honi buruzko ikuskerak kritikoa in Ainhoa Lasa. "Constitución Económica Europea y modelo social: límites e insuficiencias de la integración negativa mejorada en la lucha contra la exclusión social". Cuadernos Europeos de Deusto nº 53/2015, pp.133-165.

14 Ikus alderdi sozialaren gabeziak erakusten dituzten datuak, bereziki europar mediterraneoko herrialdeetan in Europar Batzordea: *Employment and Social Development in Europe*. Quarterly Review, February 2018.

15 De Lucia, Luca. *Conflicto, Derecho y Economía en la Unión Europea después de la crisis*. Soft Power, Vol.4, nº 2, julio-diciembre 2016, pp. 73-91.

16 Oxfam organizazioak 2018ko hasieran argitaratu emaniko txosten baten arabera Latinoamerikan, esaterako, %10ek eskura du ondasunaren %68, aldiz populazioaren erdiak %3.5a baino ez.

17 Garapen herrialdeetan lan prekaritatea %76koa zen eta emergenteetan %46 eta langile gehienak autonomo edo sare familiarretan enplegatutik zeuden, beraz, sarbide erregularren jasodun izatetik edo babes sozialdun izatetik urrun.

18 InfoLibre de 24/03/2018

19 Vid., *Expansión* 16/02/2018.

gen egoitza duen Sicav batetik, europarlamentarioa izan zelako eta 63 urte baino gehiago dituelako²⁰.

Globalizazioak dumping soziala dakarrelako, produkzioa eraman egin da babes laborala gutxiago herrialdeetara, baita ingurumenari begirune eskaseko edo giza eskubideekiko babes txikia dagoen lekuetara ere. Pentsakera neoliberalaren logika ekonomizistaren aburuz, sindikazio, grebarako edo negoziazio kolektiborako eskubiderik eza, edo kutsadurari buruzko inpunitatea, abantaila konpetitibo gisa interpretatzen dira. Horrela, inbertsio eta deslektze masiboek produkzioa Txina, India, Bangladesh, Pakistan edo Vietnam herrialdeetara eraman dute, non, esaterako ehungintza edo zapatagintzaren industrietan, langileek -gehienetan emakumezko-, lan egiten baitute egunero 10 ordu baino gehiago, sei egun astero, dolar bat orduko ordainaren truke. Aldi berean ekonomia emergenteek periferian metatzen diren kapitalak Wall Street-etik operatzen duen gune finantzierora bidali ohi dituzte²¹. Horrela, batik bat espekulazioan inbertitutako etekinak, ez dira heldu munduko populazioaren gehienera. Bidonvilles deitu uralitazko suburbioetan, ur korronterik edo zerbitzu higienikorik ez duten guneetan bizi den askorentzat, ustezko garapen iraunkorraren garaian, bizitza oso kondizio prekarioetan atera behar da.

Gerrate osteko Europar politika fiskal banatzaileak arrunt izan ohi ziren nonahi²². Gobernu gehienek bideratu zituzten desorekak moteltzera eta herritargoa kolpatzen zuten eskaziak konpontzera. Gaur, ordea, botere publikoek beren politikak bideratzen dituzte korporazio handiei fiskalitate "a la carte" eskeintzeko. Belgika, mila akordio fiskal baino gehiagorekin, APA deiturikoak, EBn buru dago iruzur fiskaleko elusioan²³.

Baina donazioen truke, partitokraziaren baliabideak loratuz joan diren heinean, baliabide publikoak ere prekarizatuz joan dira. Do ut des honen ondorioz, korporazio handiak bihurtu dira gorenako elektore eta beren etekinen zati luzea Paradisu Fiskaletan ezkutatzeko. Orobat korporazioek ebasio eta eluzio fiskalerako estatu eta nazioarteko maila gorenako funtzionarioak fitxatu dituzte beren expertisaren bidez zergak nola ekidin jakiteko. Ikerketako Kazetaritza Nazioarteko Konsortzioa delakoak (ICJ) argitu duenez, "Panama Papers" edo "Paradise Papers"-en bitartez, korporazio globalen 200 firma handien %90k badu helbide fiskala munduan zehar sakabanaturiko paradisuetan, eta Europar 20 banku handik beren etekinen %25 "offshore" dute. Ebasio masibo horren ondorioz, zerbitzu sozial, edukatibo edo sanitarioak mantentzeko baliabideak zeharo ahuldu dira. Baina bitartean, kapitalak eta jabetza pribatuak inbertsio fondoetan aurkitu dute anonimatoa eta inpunitatea.

Korruptzioa, prekarizazio politikak bezala, globalizazio oligarkikoaren beste ezauzgarri nagusienetako bat da; kudeaketa publikoa interes partikularren aldera desbideratzeko, diru, opari, sexu edo enpleguaren truke. Alderdi politikoen finantziario ilegalak sarri erabilia izan ohi da inbertsio publikoa desbideratzeko. Gainfinantziarioaren kosteak edo behar ez diren inbertsioak elikatzen dira kapitalismo parasitarioan, bai eta azpikontratazioaren eta ate birakarien bidez sare klientelarrak ehuntzen ere. Corporate Europe Observatory delakoaren ikerketek azalarazten dute ate birakariak kontrolatzeko araudiek interes pribatuei mesede egiten dietela eta mugikortasuna politikaren eta negozio guneen artean errazten dutela. Zerbitzu publikoen pribatizazioa da korruptzioaren beste aurpegi bat. Taxazio agentzien konplizitatearekin, zerbitzu publikoak saltzen ei dira azpibaloraturik, inbertsio fondoetako faborerako, British Post edo -gurean- Euskalteko pelotazoekin gertatu zen bezala. Globalizazio neoliberalak bultzatzen du halaber arlo publikoaren eginkizunak enpresa pribatuek kudea ditzaten. EPA 2017koaren arabera, urte bakar batean, Espainian adibidez, 180.000 lan postutik gora pribatizatu ziren, bereziki osasun, heziketa eta zerbitzu sozialeko alorretan.

Globalizazioak, gradu diferentetan bada ere, europar gizarte osoan eragiten du. Esaterako, gaur Europar Batasuneko presidentzian dagoen Estatuak, Bulgaria, ustelkeria globaleko sailkapenean 109. lekuan dago, gardentasunetik oso urrun. World Press Freedom, indexaren arabera, 2000. urte inguruan hedapen handiarekin atxikitu ziren herrialde gehienak Bulgariatik gertu daude. Kontu larri hauek guztiak ikustezin egin, gutxietsi edo justifikatu egiten dira propagandaren bidez²⁴. European Media Pluralism Monitor 2017ko txostenak dioenez, europar estatuen 2/3etan medioen jabetasuna lau talde baino gutxiagotan biltzen da²⁵. Katalandar prozesuak erakutsi duenez, egiazko informazioa propagandak ordezkatu du, Nodoren garaian baiginan. Europar laugarren boterearen goiburua izan ziren Le Monde, Liberation, La Repubblica, El País edo The Guardian lako egunkariak inbertsio (ideologiko) fondoetako bitartez interes korporatibo eta kastaren zerbitzurako jarri dituzte. Adibide esanguratsua izan daiteke Javier Ayuso-ren ibilbide profesionala. El País egunkariaren zuzendariordea dena, izan zen lehen BBVA bankuaren komunikazio arduraduna eta baita ere espainiar Erregetxearen prentsa arduraduna. Proceso kata-

20 Publico, 23(02/2018).

21 Vid. Varoufakis, Janis. *El Minotauro Global. Capitán Swing 2012*.

22 EE.BB.etan sarbideetako perzentilak goren %90ekin taxaturik zegoen, Eisenhower eta bere errepublikar administrazioaren garaian.

23 Euroactiv, 21.03.2018.

24 Ebazio informatiboa da gure gizarte mediatikoen erakusle. Adibide, Alemanian europako sindikaturik handienak, IGMetal, 24 orduko greba adierazi duenarekiko isiltasuna, zenbait miloi langileengan eragina izan arren. Alderantziz, ezagun den bikote baten banaketa edo beradiskidetzat nazioarteko helduera duen berri izaten ohi da.

25 Espainiar estatuan, esaterako, TVE, Mediaset, Atresmedia eta CCMA (Corporació Catalana de Mitjans Audiovisuals) merkaturiko audiobisualaren %94 izateari heldu dira eta audientziaren %78. Irratiari dagokionez, Ser, Cope, Ondacero eta RAC entzulegoaren %80. Idatzizko prentzari bezainbatean, egunkariaren salmenta Espainian apaldu da 4,2 miloi izatetik 2,3 miloi izatera azken 15 urteotan eta EBko hondar lekuan dago.

26 Vid., Vilaweb 28/03/2018 eta horri loturiko "txantxa" El Paiseko aurreko egunean. Eramera da madrildu espetxea non giltzapetu baituzte katalandar politikariak. Junts per Eramera leloak parodiaturik du Junts pel Sí o Junts per Catalunya, izeneko indar politiko independentistak.

27 Unibertsitatean lan prekarizazioa orokortu egin da irakasleen eta ikerlarien artean. Euskadin aldi baterako kontratuak orokortu dira eta zatiko arduraldikoen soldatak 400 eurokoak izaten ohi dira eta osoko arduraldikoen apenas mila eurotik gorakoak.

landarrekin amaitzeko proposatu du “Junts per Estremera” alderdi berria sustatzea²⁶. Merkantilazioa eta ate birakariak unibertsitatera ere heldu dira eta gune kritiko bezala nabarmen ahuldu dute²⁷.

2. European distopia zabaltzen.

Gerra osteko utopia federala zehaztu beharrean, Europa bidean da distopia oligarkiko baterantz. Globalizazio neoliberalaren markoan, Europak eraiki du estatugaineko egitura instituzionala non kontrol demokratikoak moteldu baitira. Zentzu horretan, EB aintzinatu da munduko globalizazio oligarkikoaren prozesuan, zeinaren bitartez erakunde ez-maioritarioek ordezkatu baitituzte nazio-estatuetan diren egitura instituzionalak eta kontrol parlamentarioak.

Europar Batasuna bere jaiotzatik urrun bizi izan da demokrazia parlamentariotik, baina Maastrichetik eta Harresiaren erorketatik hona, bizkortu egin da bere baitako botere kontzentrazioa instituzio ez maioritarioetan. Hautesleen kontrolik gabeko instituzio eta erakundeetara bideratu dituzte erabakiak, hauteskudeen eraginetatik eskapatzeko. Horrela, Ministro Kontseiluaren edo Batzordearen betiko opazitateaz gain, oraingoan Europar Kontseilua eta Banku Zentrala lako instituzioek lehen estatukidei zegozkien eskumenak bereganatu dituzte kontrol parlamentario efektiborik Gabe²⁸. Eurotaldea lako erakunde informalaren bitartez ere estatukideen aurrekontuak eta politika monetarioak baldintzantzen dira. Nabarmentzeko da Eurotaldeko bilerak aktarik gabekoak direla eta bere erabaki gehienak bere lan batzordetik bideratzen direla²⁹.

EB bihurtu da agenda neoliberalaren ezartzeko aktore erabakigarri ajuste eta errekorre politikak lehenesteko orduan. Troika edo Eurotaldea lako erakundeek, Tratatuaren kasik trazabilitaterik ez dutenak, botere handia bereganatu eta egun berek dute Euroguneko estatukideetako politika baldintzatzen. Demokrazia parlamentarioetan iritzi publikoaren begiradapean gaitz har zitzaketen erabakiak Europara ekarri dituzte, ekarri ere, hain zuzen, europar iritzi publikorik ez dagoelako. Digitalizazioaren garaian bizi arren eta mende erdia igaro den arren, europarrok ez dugu oraindik europar komunikazio mediorik eta atrapatutik segitzen dugu estatu mailako urbegi mediatikoetan. Egoera honek eta gabezi horiek zerikusirik ez dute arazo ekonomikoekin. Egunkari, aldizkari, europar telebista kate edo irratarik ez dago arrazoi politikoengatik. Agintzen dutenei erosoago zaielako erabakiak hartzea europar iritzi publikoaren kontrolik gabe.

2008ko krisialdiari europar erantzunak ondo erakutsi izan duenez, erabaki printzi-

palenak bideratu izan ziren elite finantziarioaren mesedetarako, hau da, bankuak erreskatatzeko, eta Greziari ezarri zizkieten neurriek antz handia zuten lehenago FMIk eta Munduko Bankuak munduko beste hainbat lekutan ezarri zituztenekin. Zein ere tokitan agenda neoliberalerako austeritatearen politikak estatu soziala ahultzeko tresnak izan dira, Washington-eko kontsentsuaren errezeta klasikoaren araberrakoak. Hau da, batetik, gastu publikoan murrizte basatiak erdiesteko, kontratazio berriak izoztu, soldatak gutxitu, jubilazioak luzatu edo gastu sozial, edukatibo eta osasuneko txikitu egin dituzte. Bestetik, sarbide publikoak gehitzeko, bultzatu egin dira BEZaren igoera eta pribatizazioak. Formula horiek behin eta berriro erabiliak izan direlako, ondo frogaturik utzi dute ez dutela balio zorra gutxitzeko, zorra nonahi eta esponentzialki hasi denez gero neurri horien ondorioz. Greziak, esaterako, hiru erreskate eta 260.000 miloi jaso arren, handitu egin du bere zorra BPGaren %180a izateraino. European ere beste herrialde batzuetan gertatu den moduan, Troikaren politikak bideratu izan dira nazioarteko bankara, beronek zuen zorra kitatzeko, hauek dirutza irabazteko ausarkeriazko arriskuak hartu ondoren. Krisialdia iruzur erraldoi baten ondorio larria da. Baina haina antolatu eta hartatik profitatu direnak ez dira kalteturik irten. Salbuespenak salbuespen prozesaturik ere ez dira izan eta ez dituzte bihurtu jaso dituzten etekin masiboak. Last but not least deribatuen gaineko kontrolak oraingoz ez dira ezarri izan³⁰ gertatu izana berriro gerta ez dadin³¹.

Krisialdiarekin batera agerian geratu da “Government Sachs” delako trama batek Europaren norabidearen iparra markatzen duela. Aspaldidanik Estatu Batuetan eza-guna zena, hau da plutokrazia baten menpe dagoela hango demokrazia, batzuek “Deep State” eta besteek “Kriptoestatua” deitzen duten gerizeko boterea, European ere badagoela bistan geratu da. Hauteskundeen emaitzak kontutan izan gabe, gurean ere gobernatzen da sare baten bitartez, zeinek lotzen baititu erpin politiko, mediatiko eta finantziarioak elkarrekin. Agian Eurotaldearen azterketa izan daiteke adibide egokia interes oligarkiko horien kolusioa gertutik ikusteko, bai eta azalarazteko ere Batasunaren baitan garatzen ari den teknokrazia oligarkikoaren ibilbidea. Bada, hiru agintaldietan Eurotaldearen lehenengo lehendakaria izan zenak eta eguneango Batzordeko presidentea denak, Jean-Claude Juncker Jaunak, aurretik bere hogeituro urteko ibileran finantza eta lehen ministro gisa, Luxenburgoko korporazio handientzat paradisu fiskal bihurtu zuen. Handik promozionatu zuten Eurotaldearen buru izatera eta ondoren Batzorde buru izatera. Junckerren agintaldian Luxenburgoko lehen ministro legez, 340 enprekin tax rulings deituriko akordioak sustatu ziren, Luxleaks bitartez agerian utzi dutenez. Juncker berak lehen ministro kargutik dimisitio behar izan zuen beste motako bateko eskandalu batzuegatik. Izan ere, orduko Luxenburgoko inteligentzia zerbitzuen (SREL) buru zena, oraingoan Siemens-eko se-

28 Francisco Rodriguez Ortiz. “Las crisis trastocan el inmovilismo y ortodoxia del Banco Central Europeo”. Cuadernos Europeos de Deusto, nº 54/2016, pp.155-178. Autoreak azpimarratzen duenez, instituzio horien independentzia ez da kasik inoiz egiaztatzen. o.176.

29 Ikus, Varoufakis, Janis. Adults in the Room. London: The Bodley Head 2017.

30 Ikus, “Inside Job” izeneko oskar saridun dokumentala.

31 Greziak jasotako laguntzen % 90º joan da greziar bankuek alemandar eta frantziar bankuekin zuten zorra kitatzera.

gurtasun buruarekin, Marco Mille, espioitza aferari bati loturik zegoelako³². Edozelan ere, Juncker 2017ko azaroan Salamancako Unibertsitateak doktor honoris kausa inbestitu zuen³³. Junckerren azkena, orain arte, izan da, Martin Selmayr Batzordeko Idazkari Nagusia izateko izendapenaren eskandulua. Bere gabineteko burua goratzeko, gainerako Batzordekideen bizkarrean egin izanak astindu du Bruselako eurokrazia. Horrela, bi aleman dira egun idazkari nagusiak: Batzordean, Martin Selmayr, eta Europar Parlamentuan, Klaus Welle. Bide batez, espainiarra den Clara Martínez izango da Juncker-ren Kabinete buru berria. Agian, Katalunyako krisialdian Batzordeak erakutsi duen rola eskertzeko gobernu espainiarrak, biak, Selmayr eta Martínez kondekoratu zituen. Bat Carlos III ordenarekin eta bestea Isabel katolikoarenarekin³⁴.

Bere ondorengoa Eurotaldearen buruan, multinazionalerako babesleku den beste herrialde baten ministro izan zen. Jeroen Dijsselbloem-ek, Herberehetako langileen alderdiaren kide, ministro izateari utzi zionean, hautes emaitz kaskarrenengatik, Eurotaldearen lehendakari izaten jarraitzeko, dimititzeari uko eginez gain, bere soldata MEDE fondoak ordain ziezaiola lortu zuen, hau da, erreskateetarako erabili zuten fondo berberetik. Jeroenek, fondo honetatik dirulaguntzak jasotzeko, Greziari errekorre zorrotzak eskatu zizkion arren -300 euroko pentsioetan ere-, Eurotaldearen presidente gisa bere buruari bermatu zion hileroko 14.500 euro. Besteei eskatzen zaien austeritateak ahalbideratzen ditu norberarentzat regaliak, lehengo zereginetan arrakastatsu izan ondoren, jakina. Kontraste horretan datza hain zuzen etika neoliberalak³⁵. Horrengatik, interesgarri izango da jakitea personaia honen etorkizuneko traiektoria, kalbinismoaren bozeramaile gisa, hego herrialdeetan dirua ardo eta emakumetan gaspilatzen zela zioena. Momentuz, badakigu aurreko Batzordeko lehendakariaren ibilera nolakoa izan den, hau ere promoziorik promoziora ibili dena. Ezagun denez, Durao Barroso Batzordeko lehendakari zara aupatu zuten Azoreseko Hirukoteak Portugaleko lehen ministroa zelarik, etxeko mutil izan ondoren. Bruselan hamar urteko agintaldia eta gero, Goldman Sachs-ek (who else?) fitxatu zuen firmaren europar atala gidatzeko. Corporate European Observatory deituak salatzen duenez, birakako ateetatik hainbat batzordekide eta goi funtzionario iragaten dabilta pausarik gabe³⁶. Beste adibide berriak: De Guindosen promozioa EBZ-erako³⁷, edo duela gutxi Alemanian finantza eta europar gaietarako estatu idazkaria

izendatu berri duten, Jörg Kukies, aurretik alemaniako Goldman-Sachseko buruetako bat eta lehen Renanian (Juso) gazte sozialisten burua izan zena³⁸.

III. Euroaren krisialdia adibide gisa.

Wall Street-en lehertu zen krisialdi finantzieroa inoiz ez bezalako astindua eman dio europar integrazioari, batez ere, bere sinboloa den euroari. Krisiak bizkortu egin du Europako gobernanzaren beregitureketa, ahalmen gehiago emanaz instituzio eta erakunde ez maioritarioei. Horiek bermatu egin dute, Eurotaldearen, Europar Banku Zentralaren eta Troikaren bidez, europar autoritateek bankuak erreskatatu, austeritate politikak garatu eta krisia bultzatu zutenen alderako inpunitatea. Beraz euroaren krisia adibide gisa ulert daiteke globalizazio oligarkikoaren eta Europaren distopiaren. Krisia beraz zehatzago analisatzearen beharra dago, zeren beronen ondorioek eta eraginek alor askotan iraungo baitute. Atal honetan, lehenik aztertuko duguna da industria finantzieroa 2008ko krisialdiaren genesian, eta ondoren arakatuko dugu europar agintaritzaren jokaera euroaren krisialdiaren kudeaketan, bereziki Greziarekin ukandako hura.

1. 2008ko krisialdia eta Wall Street-eko otsoak.

Wall Street-eko industria finantzieroa urbegi inmobiliario tantai bati loturiko iruzur erraldoia sustatu eta bultzatu zuen. Ingenieritza finantzieroa zorrei zatxekien ekoizkin toxikoak (CDOs deituak) garatu egin zituen kalifikazio agentzien konplizitatearekin, haiek horiei kalifikazio gorenak, Triple A, eman ohi zizkietelako. Urte luzez, inbertsio banka lanean aritu izan zen espekulaziozko kiribil eroa elikatzen. Bankuek etxeen gaineko hipotekak erosten zituzten, gero hainak paketatzeko, beste mota bateko zor batzuekin nahastuz, formula matematiko ulertezinen harira. Horrela bada, arrisku handiko zor zirenak, ordaindu izateko fiabilitatea hutsaren hurrengo zirenak beraz, bihurtu zituzten ekoizkin finantzieroa erakargarrien. Hala bada, inbertsio bankuek subprime deitu hipoteka inmobiliarioekin primerako negozioa asmatu zuten, ondotxo jakinarren subprime hipoteka horietaz jabetu ziren askok horiek ordaintzeko gaitasunik ez zutela izango inondik inora. Negozioa, baina, beste zer batera bideraturik zegoen. Izan ere, erosle insolbenteei atxikituriko etxebizitzaren hipotekak, agente inmobiliarioek eta banku lokalek Wall Street-eko bankuei saltzen zizkieten eta haiek ezin ordainduzko hipotekok, CDOs tankeran paketatuta ondoren,

30 Ilkus, "Inside Job" izeneko oskar saridun dokumentala.

31 Greziak jasotako laguntzen % 90^o joan da greziar bankuek alemandar eta frantziar bankuekin zuten zorra kitatzera.

32 El Nacional CAT 13/12/2017.

33 Europa Press 09/11/2017.

34 El Mundo 21/02/2018.

35 Horren adibide Gas Natural Fenosaren kontseilari delegatu izan denari, Rafael Villaseca jaunari, eman zaion indemnitazioa, 14,35 milioi, bere kontratua eten egiteagatik, gehi beste 3,64 milioi bere pentsio fondorako, orotara 17,9 milioi. Vid, https://www.ara.cat/economia/Gas-Natural-Rafael-Villaseca-indemnitzacio-milions_0_1962403908.html. Beste aldetik, Espainiako arlo ekonomiko indartsuenan, turismo sektorean, hoteletan lanean diharduten "Kellis" izeneko emakume garbitzailei, esternalizazioei esker, 2 euro gelako ordaintzen zaie.

36 Espainian esaterako BBVA-k Banku Zentraleko lehendakaria izan zena, Jaime Caruana, kontseilari izendatu berri du. Caruanaren agintaldian Emilio Ybarra eta BBV-ren kontseilariaren defenestrazioa gertatu zen. Caruana da azken urteotan entitate finantzierok fitxatu duten 4. Banku Zentraleko lehendakari ohia.

37 Horrela Lehman Brothers European Iberiar lurmuturrerako arduraduna izan zena bihurtu da EBZean arduradun nagusietako bat arriskuen gehiegizko akumulazioa ekiditeko EBren sistema bankarioan.

38 Vid, "Die Fehlprognosen des Goldman-Chefs", FAZ 28/03/2018.

bersaltzen zizkieten munduan han hemen sakabanaturiko beste banku edo inbertsore espekulatiboek, Triple A kalifikazioaz.

Iruzur kate luze horrek etekin gaitzak eta itzelak sortu zituen, batik bat, salmentei eta kalifikazioei loturiko agenteen artean. Direktiboek, batez ere, prima kolosalak jaso zituzten, zenbat saldu hainbat irabazi delako logikaren arabera. Negozioa aseguruete handienetara zabaldu ondoren, iruzurra areagotu eta handiagotu zen noiz ere zor horien ordaintez espekulatzen hasi baitziren. Etorkizuneko merkatuak gainezka egin zuen, inbertsio bankuak hasi zirenean, deribatuei zegozkien aseguru bitartez, CDSs izenekoekin, beren ekoizkinen kontra postura egiten. Ekoizkin toxikoak inbertsio zizutenek, esan nahi baita, inbertsio banku handiak, inork baino hobeto zekiten zer arrisku handi zegoen subprime hipoteka haietan. Esaterako, AIG Londoneko ekoizkin finantzieren dibisioa heldu zen 500.000 miloi dolarreko aseguruak emititzera, hainak estali gabe letozken galerak estaltzeko erreserbez. Hau da, Euskadiren 1980az geroztik egundainoko aurrekontu guztien bezeinbesteko kantiitatea. Biraseguratzeko negozio horrek AIGfdeko 450 enplegatuei 3.500 miloi dolar eman zien, 2000 eta 2007 urte bitartean.

Gobernu eta administrazioak ere jakitun ziren gertatzen ari zenaz. Adibidez, Hank Paulson-ek, Goldman Sachs deituan zuzendari exekutiboa zenak, (W. Bush presidentek Tesoroko Idazkari izendatua 2006ko maiatzean), bankuaren zuzendaritza mailegu hipotekarioak onartu zituen %99,4 ondasunaren balioaz. Hala ere, nahiz eta erosleak etxebizitzaren prezioaren %0,6 baino ez ordaindu, ingenieritza finantzioaren bitartez hipoteka horiek Triple A gisa kualifikatu zituzten. Ez da beraz harritzeko 2007an Goldman Sachs has zedin bere ekoizkinen kontra espekulatzen, ondo baino hobeto zekienez gero hipoteka horiek ez zirela inoiz ordainduko.

Dakigunez, 2008an ekonomia espekulatibo eredu hori goitik behera etorri zen³⁹. Ordurako bankuen apalankamentu maila, hau da, aktiboen gaineko kreditoen ratioa, segurtasun helmen edo irispentetik haratago zegoen: 2007an heldu zen 33:1 izateraino. Hau da, dolar bakoitzeko bankuek 33 dolar kreditutan emateraino. Zoramen horren abiapuntu Clinton-en administrazioa izan zen, hark desregulazioa martxan jarri baitzuen 90. hamarkadaren bukaeran. Ordudanik merkatuak kontrolatzeko ziren agintek, FED edo SEC bezalakoek, ezikusi egitea erabaki zuten. Mundu akademikoak ere kermes berrian parte hartu zuen abstentzionismo ekonomikoaren ideologia babestuz. Merkatuaren autoregulazioaren alderako konfidantza justifikatzeko teoriak garatu zituen, "ikusezinezko eskuaren gaineko fedea" dogma bihurtzeraino. Ordainetan, oligarkia finantzioak katedra, kontratu, ikerketa beka edo kontseilaritza postuez sariztatu zituen deboziodun ekonomilariak. Gero, hon-

damendiaren ondoren, eta inongo lotsarik gabe, ekonomian estatuaren abstentzioa defenditzen zuten horiek berek diru publikoek banku erreskatatzeko eta galerak sozializatzeko jokaera babestu zuten, ez balego bezala lehengo beren jarrerarekin kontradikziorik. Aldaketa justifikatzeko eta erreskateen alde argudiatzeko, bankuen dimentsioa bihurtu zen zio erabakikorra. Too big to fail leloaren arabera, bankuek zuten tamaina handiegia zen eror zitezela uzteko kriterioa. Baina horra non egun bankuak, krisialdi ostean eta bitartean izaniko fusioen ondoren, are handiago eta boteresuago diren! Beraz, logika horri fede emanik, hondamendi berri eta handiago baten arriskuak emendatu eta berretu baino ez dira egin.

2008 krakaren sorburuan irregularitatezko eginkizun aunitz daude, hala nola kontabilitate aldakeriak, baloreen manipulazioa edo arriskuen gaineko kalifikazio faltak. Joko zikin horrek gutxi batzuentzat etekin erraldoiak ekarri izan arren, milaka milioientzat ordea galerak sortu ditu. Hala eta guztiz, eta Planetaren egonkortasun ekonomikoa arriskuan jarri izanagatik ere, EE.BB.etan zein EBn eskatu diren erantzukizunak hutsalak izan dira. Hamarkada baten ondoren, oraindik ez da ezein ikerketa riguros abiatu iraganaz, are gutxiago geroan letozkeen arrisku sistemiko berriez ganorazko erreformarik sortu. Arau berriek, Basilea II esaterako, ez dute eraginkortasunik erakutsi deribatuen merkatua kontrolatzeko, eta, horretaz gain, bankari eta korporazio handien arduradunak inpunitate jantziz irten dira eragin zuten desastretatik. Zuzendaritzek akzioak eros ditzaizteneko sustagarriak (stock options deituak) bere horretan mantendu dira, frogaturik egonarren hainak iruzurrerako eta espekulaziorako pizgarri direla⁴⁰. Erreskateen ondoren, industria finantzioa, batik bat, Londonen eta New Yorken errotua, aberatsago, trinkoago eta boteretsuago bilakatu da, gobernuak horretaz jakitun izanarren. Amerikar Kongresuaren erantzun lotsatiak (Dodd-Frank legearen bitartez) ez dio arazori heldu nahi izan, eta, ondorioz, ez da zail aurrez esatea goiz edo berant eragileak eta kausatzaileak itzuliko direla burua lehengo lepotik dutela.

Industri finantzioak hartu duen tamaina eta deskontrola gauza berria da. Esaterako, konglomeratuaren arteko handienetako batek, Morgan Stanley-k, 1970ko hasieran ehun enplegatu, bulego bakar bat eta 12 milio dolar kapital gisa baino ez zituen. Egunduan, ordea, 50.000 enplegatu baino gehiago ditu, mila milio dolar kapitala eta ehunka bulego munduan barreiatuak. 80ko urteetan hasita, Ronald Reagan-en eta Margaret Thatcher-en agintaldietan bultzaturik, Wall Street eta City gune neurgarriko lege ezarri ziren kapitalismo finantzioerako. Instituzioetan horren oinarri garaikide sendoak eratu ziren, Donald Regan (Merrill Lynch-eko CEO) 1981ean

39 Amerikar gizartean bilbe espekulatiboaren ondoren gaineko relatoa in Packer, George. 2013. *El Desmoronamiento*. Barcelona: Debate. Krisialdiaz, Charles Fergusson-en *Inside Job* dokumentala, 2011 in Oskar sariak saritu zutena.

40 Enron edo Arthur Andersen eskandaluek paroxismora eraman zuten kontabilitate kreaizalea eta balantzetik at atontzeko kontabilitatea. Iruzur haien bitartez enpresen balioa eta zuzendaritzaren etekinak handitzen zirelako, gaizpraktika hauek orokortu izan ziren.

41 Krisialdi honen emaitzarik sendoena agian izango da krisialdiaren betikotzea. Heldu delako irauteko eta populazio gehiengoarentzat krisialdian bizitzea eguneroko bizibaldintza izango delako.

Tesoroaren Idazkaritzaren buru izendatu zutenean. Ordudanik, Wall Street-ek etenik gabe gidatu du gobernu amerikarraren politika ekonomikoa: 90ean, Robert Rubin Goldman Sachs-eko exCEOren Etxe Zuriko kontseilu ekonomikoa zuzentzeko goratu zuten, gero, Bill Clintonen Tesoroaren Idazkari izango zena; edo Allan Greenspan eta bere ondorengo Ben Bernanke FEDeko lehendakari egiteko izendapenekin. Haiek desregulazioa eta deribatuen merkatuaren eklosioa bermatu zuten hogeitamar/berrogei urteko aldirian, zeinetan bat egiten baitira amerikar presidentziak oro Reaganetik Trumperaino. Guztien artean nabarmenena, atea ireki zuelako, Clintonen presidentzia izan zen. Beraz, ez gintuzke harrutuko jakiteak beronen fundazioak etenik gabe jaso izan dituela donazioak Wall Street-etik, ezen The Clintons bikotea plutokraziaren kutun kuttuna bilakatu da, bilakatu ere hainbestez, non Hillary, lehendabizi, New Yorkeko senatari eta, ondoren, EE.BB.eko lehendakariagaia egitera sustatu baitu⁴².

Goldman Sachs, CitiGroup eta JP Morgan lako inbertsio bankuak beren interesen defendatzeko gauza izan dira horretarako konfidantzazko jendea sararaziz amerikar erakunde federaletan, SEC (Securities and Exchange Commission) edo CFCT (Commodity Futures Trading Commission) deituetan eta antzekoetan. EBn ere, banku haiek eta beste batzuek (Deutsche Bank, UBS, Barclays...) Europar Banku Zentralean eta Estaturikideetako ekonomia eta finantza ministeritzetan eragin handia lortu dute. Beren intereszainen bitartez erdietsi dute zor pribatu zirenak publiko bihurtzea. Bankuek, horiek gainbegiratu eta kontrolatzeko, erakunde publikoen konplizitatea izan dute. Horrela, gobernu eta administrazioek aise onartu izan dute subprime lako hipotekak errekonberti daitezen destruktio masiboko balore toxiko. Horren ondorioz eta zirkuito finantzieroa kutsaturik geratu denean, agintariak eta hedabideek bankuei ahalbideratu egin diete iruzurra zuzitzea. Iruzurtean ezinbesteko kooperatzaile izan dira kalifikazio agentziak (Muddys, S&P, Fitch), zeinen etekinak oinarritzen baitziren balore segurutzat kalifikatzean beren sortzaileentzat "kaka zahar eta zabor" baino ez ziren ekoizkinak. Horrela, esaterako, Fanny Mae eta Freddy Marc, amerikar immobiliaria nagusiek, nazionalizatu aurretik, A2 kalifikazioa zuten, Lehman Brothers edo AIG kolapsoaren aurretiazko egunetan zuten bera.

Ekonomia produktiboaren sekundarizatzeko hautua politika antirregulatorio batek ahalbideratu zuen, Clinton administrazioan Glass Steagall legearen ezbetearaztea onartu zutenetik. Lege hark 1932tik galera zuten gordailu bankuen fondoekin espekulazioa, baina 1999an Gramm-Leach-Bliley legeak baimendu egin zuen Citibank eta Travelers arteko fusioa, horrela bidea emanaz munduko konglomeratu finantzierorik handiena sor zedin: Citigroup. Ondoren, 2000. urtean Deribatuen

Modernizatzeko legeak debekatu egin zuen deribatuen erregulazioa⁴³. Horrelaxe ireki ziren ateak espekulazio erraldoiari eta kontzentrazio berriei. Esaterako, 2008 krisiak ahalbideratu zuen JP Morgan Chase-k Bear Stearns bereganatzea eta Bank of America-k Merrill Lynch hartzea. Orobat, etxebizitzarako maileguak hamar urtez 30.000 milioi izatetik 600.000 milioi izatera handitu ziren eta ibilbide ero hartan mailegu-emate handienak (Countrywide) 100.000 milioi mailegutuan eman zituen, 10.000 milioi irabaziz, lur jotzearen ondoren, Bank of America bereganatzera behartu zuten arte. FED legezko araudia izan arren industria immobiliaria kontrolatu eta erregulatzeko, 1994 Home Ownership and Equity Protection Act bidez, orduko FED-ren lehendakaria zenak (Alan Greenspan) haina erabiltzeari uko egin zion. Aldi berean, Christopher Cox SEC lehendakariaren agintaldian 146 ikustatzailerik kanporatu zituen agentzia federal hura ikerketarako eta kontrol baliabideez hustu arte. Bitartean Senatuan, deribatuen desregulazioaren politikaren aldeko sustatzaile printzipalena (Phil Gramm) bihurtu zen UBS-ko lehendakariorde, h.d., inbertsio banku nagusienetako gorenetakoa arduraduna.

Nahiz eta jokaera desegoki batzuegatik mende honen hasieran Wall Street-eko bankurik handienak isunak jaso, zela kontabilitatean manipulaziotatik, zela funtzionarioei sobornatzeagatik, zuzitze edo ebazio fiskalengatik..., isunak etekinen aldean oso txikiak zirelako, urbegi teknologikoaren leherketaren ondoreneko jokaera are txarrago bihurtu zen. Inbertsio bankuek antolatutako negozio espekulatioaren hondamenditik industria finantzieroa diru publikoen bitartez erreskatatzeko, amerikar zergapekoei 700.000 milioi dolar kostatu zitzaizkien, AIGren soilik 100.000 milioi. Europar bankaren erreskaterako ehunka mila milioi euro heldu ziren aurrekontu publikoetatik. Hondamendia gertatu arren, Obamaren administrazioak berriro Wall Street-eko gobernu osatu zuen, Ben Bernanke FEDen berrestuz, Larry Summers ekonomiarako kontseilari nagusi izendatuz, edo Timothy Geithner, New Yorkeko Federen gainbegirale izana Tesoroaren Idazkari izatera goratuz. Futuruen salerosle batzordearen nagusi izateko, Gary Gensler hautatu zuen, Goldman-en beste exekutibo ohi bat, eta SECaren buru izateko, Mary Shapiro, inbertsio bankuen autorregulatzeko erakundearen lehendakaria izan zena. Bere bigarren agintaldian Obamak FEDen, Bernanckeren orde, Janet Jellen izendatu zuen, Wall Street-eko exekutiboaren etenik gabeko sokan etendura eginez. Baina Mary Jo White-n izendapena SECaren⁴⁴ buruzagitzara 2011n atzerapausotzat ulertu zen. Bere erretolikiari muzin egitean, Obamak pleitesia osoa erakutsi izan dio Wall Street-i, bere lehendakarietarako bi kanpainan sustatzaile nagusia izan denari, hain zuzen.

Trump administrazioari dagokionez, Goldmanen presentzia mantendu da Steven

42 Politikarien korrupzioa amerikar plutokraziaren ezaugarri bat da eta hura estaltzeko erabili ohi dituzte hitzaldiengatik ordaintzen diren itzelezko tarifak kargua utzi ondoren. Arrunta dira ehun milaka dolar gorako ordainketak ordu bete gutxiko speech bakar batengatik

43 1998an FEDek Long-Term Capital Management, biloi dolarreko zuldun funts espekulatioari, porrot izatetik erreskatatu arren.

43 1998an FEDek Long-Term Capital Management, biloi dolarreko zuldun funts espekulatioari, porrot izatetik erreskatatu arren.

44 Baloreen Merkatuaren Batzordeak (SEC) 2004an agindu zuen inbertsio banku handien apalanketazio maila 12:1 izatetik 30:1 gora zitekeela.

Mnuchin-en izendapenarekin Tesoroaren Idazkaria izateko eta Gary Cohn Batzorde Ekonomiko Nazionalaren zuzendari izateko hautuarekin, azken hau Goldmanen lehendakaria zelarik⁴⁵. Trumpek FEDen Jerome Powell, Jellenen lekuan, eta SECen Jay Clayton nominazioekin oligarkiaren aldeko politika fiskal eta espekulatiboari sostengua eman die, baita kapitalen eta sozietaten gaineko zergak nabarmenki gutxitu ere. Bere Kontseilari Ekonomikoen Batzordeko buru, Kevin Hasset, aurretik izan zen W.Bush-en kontseilari ekonomikoa eta beste errepublikar lehendakari batzuen. Gauzak hórrela, Trump-en erreforma fiskal berriak kapitalen etekinen gaineko zerga gutxitu egin du, %35 izatetik %21 jaisteraino. Honek permititu dio Warren Buffett enpresa denari, Berkshire Hathaway, 23,5 mila miloi etekin gehigarri jasotzea, 2017an bere etekin netoa 24tik 45 mila miloi dolar izatera igaro ondoren⁴⁶.

2. Grezia eta euroguneko asimetriak

Krisialdiak jite berezia hartu zuen eurogunean eta Grezian bereziki. Greziaren partaidetza loturik dago 90eko hamarkadaren hondarrean Kostas Simitis-en gobernuak bultzaturiko iruzurrari, ezen 300 miloi euro ordaindu zion Goldman Sachs-i falsifikazio estatistikoko erraldoia antolatzeagatik⁴⁷. Horrela ahal izan zuen Greziak 2004an euroguneko kide bihurtu, Maastrichteko eskakizun gehienak bete ez zituen arren. Gero, zenbait urteren buruan, orduko Goldman-Sachseko europar lehendakariordekoa, Mario Dragui, Europar Banku Zentraleko lehendakari egin zuten. Nahiz eta Eurostatek (Europar Batasuneko estatistikarako agentzia) falsifikazio hori salatu, Wall Streeteko kalifikazio agentziek Greziaren bonusei Triple A eman zieten, baloraziorik gorena. Greziar partitokraziaren partaideak oro, horietan Demokrazia Berria alderdia ere, Pasok-eko gobernu batek bultzaturiko falsifikazioarekin bat etorri ziren. Euroarekin batera kredituak eurijasa legez heldu ziren greziar bankuetara, horrela kontsumoan sustraituriko hazkundera bultzatu zuelarik abiada handian. Greziar bankuek frantziar eta alemaniar bankuetatik mailegu masiboak eskuratu zituzten eta, hainbestez, post-modernitatearen euforiak greziar gizartea, administrazioa, enpresak zein hiritarrek eraman zituen gastu moskorraldi batera. Pentsio sisteman esaterako, abusoak orokortu egin ziren klientelismoari zerion korrupzio eskandalugarriaren bidez.

Wall Streeten larbatu krisia heldu zenean, bide eman zion zorpeko finantziario masiboari. Marea kreditizioaren bestondoak Grezia kolpatu zuen intentsitate bereziaz eta bistan utzi zuen hazkunderaren eta ongizatearen kartak trukaturik zeudela. Marearen aldaketak agerian utzi zuen itsasfauna autoktonaren ezgaitasuna ere euroguneko arrain-ontzian leihakor aritzeko iparraldeko marrazo artean. Grezia, Italiako hegoaldea edo Espainia eta Portugal lako eremuak merkatu europarraren erdigunearikiko peri-

feriko dira eta haien ohiko lehiakortasun ekonomiko eskasa debaluazio ekonomikoen bidez leundu izan ohi zuten. Baina moneta bakarra dagoenez geroztik, debaluazioaren baliabide hori desagertua da. Noiz ere Greziak bere biluztasun finantziarioa estaltzeko laguntza eskatu eta erreskatatua izateko deia luzatu baitzuen, orduan Alemaniak aprobetxatu zuen bere egoera berria agertarazteko botere kontinental gisa⁴⁸. Beharturik ere, ezen ordurako Alemaniak jada bere bankuak erreskatatuak zituen Bundestag-aren baimenaz eta estatuaren aurrekontuen kontura. Merkelen iritzirako, komenigarriagoa zirudien bere bankuen bigarren erreskateari europar itxura ematea, Bundestag-era berriro laguntza eske joatea baino.

Horrez gain, Greziaren erreskateak bide eman zuen ajuste eta austeritate politikak orokortzeko ere, horrela krisialdia bihurtuz neoliberalismoa hedatzeko aukera. Ajuste oso gogorak inposatu ziren, Grezia eredu izan zedin Espainia, Italia edo Frantziarentzat. Baina Troikaren bidez EBk inposatu baldintzek gaixoa osatu beharrean kondatu egin zuten etenik gabeko agoniara, laguntza gehien gehiena (%90tik gora) enplegatu baitzen bankuak (greziar, alemaniar eta frantziar) erreskatatzeko. Aldi berean, austeritateak ekonomia grekoan eragin zuen itolarriak agintari helenoak behartu zituen beste erreskate bat galdegitera, lehen erreskateetik metatutako zorra ordain ahal izan dezan. Alabaina, bigarren erreskatearen baldintzek areagotu egin dute egitura produktiboaren itomena. Kiribil maltzur horren ondorioz etorri ziren: BPGaren %25en galera, pentsioen txikizioa, kasik erdira izatera murriztuak, eta soldaten apaltzea %35 inguruan. Ekonomiaren gaitzeko kontrakzio horrek ezinbestez populazioaren debastazioa ekarri zuen, gerra eszenario batean bizi bailitzan. Beste aldetik, euroak Alemaniari ahalbideratu dio askoz lehiakorago izatea, ezen markoari eutsi izan bali, orduko DM hark gaur balio luke kasik bi aldiz gehiago, eta balizko baldintza horietan alemaniar aukerak beste merkatuetan sartzeko nabarmen txikiago ziratekeen eta lirateke.

Eurogunearen asimetriak oso handiak izan dira hastetik beretik, eremua gaizki diseinatu zuten, zentzupen eta babes osagairik gabe. Krisialdiak azalarazi duenez, harturiko neurriak behin behineko izan ohi dira, eta EB aritu da etenik gabeko inprobizazioan. Europar erreserba fondo baten faltak ahulago diren ekonomiei kalte eragin die eta ezgai izan direnean beren zor publikoen gaineko espekulazioa geldiarazi (¿?). Batasun fiskalaren ezak batasun monetarioa dudak ekarri ditu eta, FMk onartu duenez, Greziaren zorra guztiz ordainezina izango da. Haina kitatzeko, osoki ordaintzeko, Greziak beharko luke hamarkada batez, urtez urte jarraian, %7ko superabitak izan, errealiatetik guztiz at dagoen panorama. Aitzitik, Eurotaldeak sistematikoki ezetza eman dio kita bati edo zorra birmoldaketari, ordaintzeko baldintza eta epeak

45 *Missouriko senatariak, Claire Mc Caskill, Trumpen Kabinetea definitzeko 3Gs gobernu gisa bataiatu zuen: Goldman (Mnuchin, Bannon, Cohn), Generals (Flynn, Mattis, Kelly) and Gazillionaires (Tillerson, Hamm, De Voss).*

46 *Vid., Économie mondiale 25/02/2018.*

47 *Kouvelakis, Stathis 2012. El crisol griego. New Left Review 72: 15-29.*

48 *Europaren germanizazioa Berlingo gobernuaren eraginaren bitartez in Mariscal, Nicolas 2013. Repensando la europeización. Cuadernos Europeos de Deusto 49: 19-46.*

gozotzeko, greziar gobernuak eskatzen zuen legez, modu horretara aurre egin ahal ziezaien beharrezkoak ziren aldaketa budgetario eta fiskalei.

Frogatu da erreskateak arras ezeraginkor izan direla, horra zergatik zorra %180 izatera igo den. Baina iritzi publikoaren aurrean ongi asko saldu da erreskateen ego-kitasuna. Hedabideek zabaldu duten ideiak dio grekoak alper eta korrupto direla, ezgauza tentuz eta artez administrazioa eta ekonomia atontzeko, eta logika horren arabera, erabat justifikaturik leudeke Troikaren neurriak Alemaniaren eraginkortasun eta antolakuntza eredu Grezian inposatzeko. Gutxi balio izan du gogoratzeak erreskateen helburuak bestelakoak izan direla, edo Greziak Alemaniari krimen naziengatik erreparazioak kondonatu izana, nola eta beste europar herrialdeek egin zuten Londoneko 1953 Konferentzian, Alemaniaren zorraren %62ko kita onartu zutenean. Alabaina, Alemaniak urteak daramatza entzungor eginez eta integrazio prozesua erabiliz Europa alemaniarra osatzeko, EB xede horretarako baliabide besterik ez bailitzan. Merkel eta krisialdiaren garaian bere finantza ministroa izan zena, Wolfgang Schäuble, aritu izan dira harrokeriaz beterik, oihartzuna egiten elite alemaniarren artean omen dabilen ideia kezkarri bati: Alemaniaren rola Europan behar dela izango Prusiak Reich-ean zuenaren antzekoa eta Frantziarekiko tratua orduko Bavierak jaso zuenaren parekoa. Ikuskera horren arabera, zilegi da galdetzea ea zer tratu espero lezaketen ahulago eta txikiago diren estatuek edo, oraino ere are kezkarriagoa dena, estaturik gabeko nazioek.

Greziako krisialdiak agerian utzi ditu ezaxolakeria larriak eta irregulartasun asko. Nola urte askoan Greziak berak eta europar instituzioek, biek ausarkeriazko jarduerak izan baitituzte korporazio finantzieroen alde, Syriza Atenaseko gobernura heldu ondoren, europar klase politikoaren asmoak guztiz ebident eta nabari egin ziren Eurotaldeetik disidentzia ohiltzeko eta Varoufakis-ek libratzeko. Baina izuaren kanpaina pairatu arren, greziar hiritarrek bere gobernu berriari babesak eman zioten hark berak deituriko erreferendumean. Troiak, ordea, erresistentzia apurtzeko eta imitatzailerik sor ez ledin, bere eskaerak emendatu egin zituen eta, finean, Greziako gobernua plegatu egin zen haiek onartzera. Varoufakis-en errelatoak⁴⁹, Eurotaldearen⁵⁰ omertá apurtu duen kontakizun bakarra, jakinarazi du eurotaldean ekonomia eztabaidak guztiz arrotz direla eta nolabait erakunde hark islatzen duela merkataritzako absolutismoa, non soilik lerro ekonomiko bakarrak eta lider bakarraren ahotsak lekurik duten. Eurotaldea talde informala da eta bere izaeraz Lisboako Tratatuan arrastorik bakarra dago 14. Protokoloan. Ingurumaria hartan, Syrizak aurkezten zituen proposamen keynesianoak, hazkundea eta eskaera suspertzeko, interpretatu izan ziren esker muturreko bailiran. Neoliberalismoarentzat, Greziar krisialdia aukera izan da eredu soziala

apaltzeko eta eskuin alemaniarrentzat abagunea bere hegemonia sendotzeko.

Lehen aldiz, III Reicharen porrotaren ondoren, Alemania goratu da lidergora. Baina berriro ere deslaxatzen jarraitzen du. Urte luzez ipotx politikoa izan ondoren, bere irteerak EBren politikaren dantza lekura erakutsi du beronen jokoaren zabarkeria. Haver-mas-ek berak ohartarazi duenez, jokamolde horrekin Alemaniak suntsitu egin du hamarkada luzez berak metatu kreditu politikoa, erraldoi ekonomikoa baino ez delarik. Austeritatearen melodia inposatu du sinetsita musika entzuteko eskubidea soilik dagokiola haina ordaintzen duenari, EBko orkestran estatukideak meneko hartuz bere gidaritzapean. Alabaina, Alemania bera izan da gehien profitatu dena integrazio prozesuaz eta orobat greziar krisialdiaren kudeaketaz. Bere erantzun maltzurak greziar sos deiari, arrisku primaren arteko diferentzialak elkarrengatik aldentzera ekarri zuen. Horrela ahalbideratu zitzaion ehunka mila miloi euro aurrezteko alemaniar bonoen finantziarioaren bidez.

Horrez gain, lehengo bi erreskateek funtsean balio izan zuten alemaniar bankuek harturiko ausarkeriazko arriskuak estaltzeko. Aipa ditzagun berriro moneta bakarretik Alemaniari datozkion abantailak: debaluazioa debekatzen zaiela periferiako bazkideei eta euroak Alemania lako ekonomia esportatzailea gaitasun egokian mantentzen duela. Alemaniaren ekonomian euroguneak sortarazten dituen etekin asko aurrezkiaren bidez esportazio finantzierorantz bideratzen dira, barneko kontsumorantz egokitu beharrean. Politika hori Europako bere bazkideentzat oso insolidarioa da. Orobat, alemaniar gobernuak sinetsarazi nahi du greziar zorraren metaketan ez duela ardurarik izan, baina armagintza industria germanoa izan da kreditu uholdearen onuradun nagusienetako bat. Egun ere alemaniar enpresak ondo profitatzen dira ondasun publiko helenoen salmentaz. Gogora dezagun halaber greziar gobernu korruptoak izan direla Alemaniaren bazkiderik kuttunenak hainbat hamarkadetan.

Ekonomilari askok nabaritu dute greziar zorra ordainezina dela eta greziar ekonomia ez dela inoiz gai izango zorra ordaintzeko. Baina egiatan hartzekodunen helburua eta beraien erreskateen planen xedea ez da inoiz izan zorraren ordaintzea. Ondo dakite, Espainia edo Portugal, Italia edo Frantzia bezala, zorpekodunak ez direla gai izango hainak ordaintzen. Zeren Europan eta mundu osoan metaturiko zorrak balio du, batez ere, merkaturik, Brusela, Washington, Frankfurt, London edo New York-etik, oligarkiaren nahia inposatzeko, h.d., baldintza sozial, ekonomiko eta politiko berriak ezartzeko, beti ere oligopolioen interesen alde.

Txiritaren eta inurriaren alegia, mundu germaniar eta neoliberalak hedatu duena

49 Varoufakis, Janis. *Aduts in the Room: My battle with Europe's deep establishment*. London: The Bodley Head 2017, op.cit.

50 Eurotaldearen bilerak Eurotaldearen Lantaldeak prestatzen ditu. *Krisialdiaren urteotan, 2012-2018*, Thomas Wieser izan zen haren buru. 2018ko otsailetik Hans Vijlbrief holandarrak ordezkatu du. 2017ko abendutik Mário Centeno portugaldarrak ordezkatu du Jeroen Dijsselbloem Eurotaldearen lehendakartzan, non holandarra izan zen 2013tik.

Greziarako nonahi beren politika depredatzaileak justifikatzeko, ez du kontutan hartzen Alemanian ere inurriak eta txirrirak daudela⁵¹ eta EBn afera ezin daitekeela izan guztiok alemaniar izan ala ez izan. Europak ulertu beharko luke zer abantaila den bere dibertsitatearen jabe izatea, bai eta jakin behar luke dituen kulturetatik ahalik eta konbinaziorik onena ateratzen. EBko instituzioek zentzatu behar lukete bere jarrera eta greziar gobernuari krisiaren irtenbide solidarioa eskaini. Orain arte, ordea, Eurogunean baztertu eta bakarrik utzi dute gobernu grekoa austeritate politikak arbuatzen. Sinesgaitza bada ere, XXI. mendean eta EBren barruan populazioa gerraosteko baldintzetan bizitzera behartu izan dute eta europar hiritargoari hedatu zaion mezuak dio EBn egotea ez dela ezeren berme, bizi baldintzak larriki oker daitezkeelako europar instituzioen agindu eta erabakien ondorioz. Ez da mira egiteko, beraz, krisialditik Europaren irudia guztiz itsusturik ilki izana. Urte luzez franko-alemaniar ardatza izan dena urte gutxian ordezkaturia izan da Alemaniaren bakarreko hegemoniaz. Lehen, estatukideen arteko erkidego politika orekatua zena, egun, neoliberalismoaren eta Alemaniaren hegemoniaren bidez, bilakatu da herrialde eta pertsonen artean diferentziak eta distantziak handitzeko organizazio.

IV. Zer espero eta zer egin dezakegu europazaleok.

Epe ertainera erreforma zenbait espero datorkeen arren, zorraren mutualizazio partziala edo europar hautes zirkunskripzioa, besteak beste, gero hurbilean ez dira gauzatuko. Eserlekurik ez da banatuko Europar Parlamentuaren 2019ko hauteskundeetan⁵² europar zirkunskripzio bakarrean, eta Jens Weidman, Bundesbankeko oraingo lehendakariak ordezkaria baleza Mario Dragui Europar Banku Zentralean, erreformak luzatuko dirateke. Alemaniaren eta gainerako Euroguneko estatukideen arteko diferentziak, balantza komertzialak edo aurrekontuen artekoak esaterako ez lezozkete apalduko bidean⁵³. Beraz, ez du ematen funtsean EBren instituzioetatik bultzatzen den prekarizazio norabide antisoziala aldatuko denik edo bere egitura errepresentatiboa indartuko duenik gero gertuan.

Zentzapen handirik gabe, datekeena da, ordea, globalizazio oligarkikoaren modetara sustatuz joan ledin eta Europan aurrera egiten jarrai dezan integrazio prozesuaren deriba neoliberalak. Ez dezagun bistatik gal proiektu honi loturik datorrela, estamentu global transnazional baten konfigurazioa, dualizazio soziala eta ongizate estatuaren gainbehera sustatzen duena. Eraldaketa global hartan, nazioarteko eta estatudun instituzioez gain, korporazioek duten rol garrantzitsua indartu da akordio fiskalen bidez gauzatzen den eluzio fiskalaz, zeren, zergen ordainketa ekiditeko, korporazio handiek royaltiak erabiltzen ohi dituzte maiz ebasioa gauzatzeko. Hau da, enpresa

bat eraten dute hari soilik royaltiak ordaintzeko eta haren egoitza halako edo beste halako paradisu fiskalean dute egokitzen. Esaterako, Irlandan, Luxenburgon, Belgikan edo Herbeereetan dauden enpresa pantailetatik Europa osorako kontabilitatea bideratzen da. Herbeereetako kasuan sozietate komanditarioaren formula erabiltzen ohi da, zeinek ahalbideratzen duen atzerritar enpresen artean eraturiko kontsortzioek zergarik ordain ez dezaten "atzerrian", Herbeereetan soilik baino ez. Irlandaren kasuan "irlandar doblea" delakoa erabiltzen ohi da: enpresa bat eraten dute merkatal egikaritzarako eta beste enpresa bat jabetzako intelektualerako, beroni korporazio enpresa guztiek royaltiak ordain dietzaizoten. Jakina, royaltiengatik ordainketak oso altuak dira, hain altuak non merkatal operazioetan korporazioek galerak baino ez dituzten jasaten... Iruzur kontable hauek ez dute etenik, ezen korporazioen konfiantzazko agente gisa lanean diharduten politikariek bermatzen baitituzte estrategia fiskal haien legalitateak.

Itxurakeria globalean adibide paradigmaticoa Apple da, zeinek 2001 eta 2016 bitartean 16.000 miloi aurreztu zuen zergetan, Europar Batasunean erdietsiko etekinengatik. Europar Batasun osorako operazioetan, Irlandan duen egoitzan izan etekinengatik, %12 ordaindu beharrean, sozietate pantailen bitartez, Applek lortu zuen soilik %0,005 tribututzea⁵⁴. Ez da beraz kasualitate Macron edo Juncker jaunek asmatutako erreformei (nola baitira eurobonoen sorrera edo arriskuak mutualizatzeko proposaturiko beste neurri batzuk, edo Eurogunearen instituzionalizatzeko planak, edo enpresa teknologikoei inposatzeko zerga bereziak) erresistentziarik bortitzenak Irlandan, Luxenburgon edo Herbeereetan agertu izana.

Alderdi politikoak, ez kuantitatibo ez kualitatiboki ere, jada ez dira lehengo erakunde. Beren politika askoren diseinua subkontratatu dute agentzia kontsultoreetan, Davosetik datozen oihartzunen harietara. Alemaniako finantza ministroa eta Greziako erreskateen jagoletan izan zenak, Wolfgang Schäuble, esan zuenez: "hauteskundeek ez dute baliorik politikaz aldatzeko". Pentsakera neoliberalaren kristalizazio horrek islatzen du egungo europako demokraziari darion tenore autoritarioa.

Europazaletasunak kontinente osorako utopia sozial eta demokratikoari eutsi beharrean, hura Estatukideetan suntsitu nahi duen proiektu oligarkikoari babesa eman dio. Europazaleontzat bakearen, prosperitatearen eta demokraziaren helburuak egiazko paradigmak balira, orduan zorrotzago begiratu beharko liriteke Europaren jokaerak Afganistan, Libia, Siria, Yemen edo Mendebaldeko Sahara lako gatazketan. Baita, EBk bultzatzen dituen segurtasun politika⁵⁵ eta errefuxiatuen aurkako jokaera. In summan, norabide oligarkikorantz dabilen demokrazia arbuatu beharko luke. Banago ezen gertuko geroan politika fiskala ez bada aldatzen, dagoeneko pairatzen den

52 Europar Parlamentuak hauteskundeak europartzeko proposamena atzera bota du 368 botoekin eta 274 aldekoekin. PPE, britaniar kontsebatzaileak, eta euroeszeptiko batzuen koalizio batek desegin du afera konstituzionaletarako batzordean gauzatu izan zena, hau da, dozenaka eserleku zirkunskripzio europar bakarrean eta zerrenda europarren artean banatzea.

53 Alemaniak dituen superabit komertziala eta budgetarioak nabarmenak direlako eta kontrastean daudelako beste Estatu-kide askoren defizitekin.

54 El País 30/08/2016.

55 Ikus, TNI, Market Forces: The development of the EU Security-Industrial Complex, 25 August 2017 Report

lan prekarizazioari pentsiodunen ondoeza gehituko zaiola. Hogeitamar Loriosoen herentziaz disfrutatzen duten askok dualizazio sozial eta populismo estatalari babesa eman diote. Hau da, gazteak, emakumeak, soldatapeko eta pentsiodunak prekarizatzen dituen⁵⁶ eta etorkinak ignoratzera edo haiekin talka egitera bultzatzen duen distopiar⁵⁷. Europar politika horiek solidarioago eta demokratikoago bihur daitezzen ezinbestekoa deritzat europeismo kritiko baten agerpenari, egiatan integrazio prozesuaren norabidea aldatzeko nahia duen bat.

Globalizazio neoliberalari atxikirik etorri diren kapitalismo basatiaren ezaugarriak: lanaren eta ongizate sozialaren prekarizazioa, korporazioen ebasio eta eluzio fiskal masiboa, edo kapitalismo finantzieroari loturiko espekulazioa, ez dira gerra ostean, integrazioarekin batera, garatu zen eredu keynesianorenak. Gaurko ereduak antz gehiago dauka lagun arteko kapitalismoarekin, oligopolioen bitartez garatzen dena externalizazioaz eta subkontratazioaz, edo BOEren bidez banatzen diren dirulaguntza, kontratu publiko edo kontzesioekiko menpeko den batekin, hau da, neoabsolutismo lako kapitalismoarekin. Baina munduan gauzatzen ari den ekialderanzko lerratzearekin batera, Europaren egokera pribilegiatua zalantzan dago eta desafio handi horri integrazioak oraingoz ez dio erantzun egokirik eman⁵⁸. Dagoeneko, alemaniar hegemonia berriak Europar Batasunean eredu nazional eta insolidarioa gorpuztu du, Deutsche Mark-eko gunea izan zenari lehentasuna eman⁵⁹. Lehenagoko garaietan bezala, Europak erreforma baten beharra du eta europazaleok bestelako Europa hauspotu beharko dugu, Davos mendi sakratutik agintzen duen oligarkiari olatua egin beharrean.



-
- 56 *Goranzko desberdintasuna ez da soilik %1a eta gainerakoen artean gauzatzen ari dena. Lan kategoria orotan pribilegiatuen eta prekarizatuen arteko distantzia handituz doa. Kontratazio berrien arabera kategoria gehienetan prekarizatuak gehiengoa izango dira hurrengo 15 urte barru.*
- 57 *Planetan errefuxiatuen kopurua heldu da 65 milioi izatera. %85 herrialde txiroetan daude, sei herrialde aberatsenek ordea soilik %10 hartu dute.*
- 58 *Dragsbaek Schmidt, Johannes & Hersch, Jacques. Economic History and the “East Wind”. Challenges to Eurocentrism. Monthly Review. February 2018, pp. 15-31.*
- 59 *Balabán, Milos. From the End of History to the Post-American World.. CEJISS, 3-2017, pp. 9-36.*

ANEXO EUROPA KRISIAN

Euskal adituak eta ordezkariak Europaren etorkizunari buruz hausnartzen.

2018ko otsailak 21 / 21 de febrero de 2018

EuroBasque

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua
Consejo Vasco del Movimiento Europeo
www.eurobasque.eus

ehugune

Europa Krisian:

Euskal adituak eta ordezkariak Europaren etorkizunari buruz hausnartzen

2018ko otsailak 21 / 21 de febrero de 2018

Erretoretzaordeko
Batzar Aretoa
EHU-UPV
Vitoria-Gasteiz

16:00 h

HARRERA / Recepción

MARIAN ELORZA – Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia

16:10 h

AURKEZPENA ETA MODERAZIOA / Presenta y modera

JOXERRAMON BENGOETXEA CABALLERO

ehuGuneko zuzendaria eta Eurobasqueko idazkari nagusia

16:20 h

MIKEL ANTÓN

Eusko Jaurlaritzako Europar Gaietako arduraduna

16:40 h

JOANA ABRISKETA

Deustuko Unibertsitateko irakaslea

17:00 h

ANDER ERRASTI

Globernance-n ikertzailea

17:20 h

EDURNE TERRADILLOS

Eurkal Herriko Unibertsitateko irakaslea

17:40 h

IÑIGO BULLAIN

Eurkal Herriko Unibertsitateko irakaslea

18:00 h

EZTABAIDA ETA ITXIERA / Debate y clausura

**IZEN EMATEAK
INSCRIPCIONES**

jardunaldiak@eurobasque.eus



Europa Krisiz Krisi: korapiloa askatzen

Europa en crisis: análisis y propuestas

